



Ezkerraldea 2030

Plan Estrategikoa

ezk



**Ezkerraldea
gara.**

ehbildu

Aurkibidea

Aurkezpena	7
Ezkerraldea gara!	8
Ezkerraldearen egoeraren analisia	13
2030rako Ezkerraldearen ikuspegia	19
 1. arloa. Ekonomia	 23
1. ardatza. Berrindustrializazio adimendua 5.0	25
1. lan ildo: Espezializazio arloen definizioa 5.0.....	25
2. lan ildo: 5.0 Espezializazio arloekin lerrokatze planak.....	27
3. lan ildo: Industria lurrak egokitzea	28
4. lan ildo: Inbertsioak erakartzea	29
5. lan ildo: Formakuntzako hobekuntzak	30
2. ardatza. Energia	32
6. lan ildo: Bidezko trantsizioa	33
7. lan ildo: Berriztagarrien plana eta trantsizio ekologikoa	34
8. lan ildo: Energia komunitateak.....	34
3. ardatza. Biozientziak.....	35
9. lan ildo: Biozientzien garapena	36
4. ardatza. Tokiko merkataritza.....	37
10. lan ildo: Merkataritza-ehunari babesa	37
5. ardatza. Industria kultura.....	39
11. lan ildo: Industria-kulturaren sustapena	39
6. ardatza. Turismo jasangarria	41
12. lan ildo: Mendebaldea: helmuga turistikoa	42
13. lan ildo: Beste eredu turistikoa batzuk	42
7. ardatza. Lehen sektorea	43
14. lan ildo: Lehen sektoreari bultzada	43

2. arloa. Lurraldea	45
Lurraldea deskribatuz.....	46
Hirigintza	48
8. ardatza. Etxebizitza.....	50
15. lan ildo: Etxebizitzarako eskubidea bermatzea	50
9. ardatza. Giza eskalako lurraldea	52
16. lan ildo: Nekazal guneak eta gune berdeak.....	52
17. lan ildo: Hirigintza sozial eta jasangarria	54
18. lan ildo: Igorpen Gutxiko Eremuak	55
10. ardatza. Garraio publikoa	57
19. lan ildo: Garraio publikoak indartzea.....	59
11. ardatza: Azpiegiturak	65
20. lan ildo: Bidegorriak eta oinezkoentzako bideak	66
12. ardatza. Mugikortasun jasangarria.....	68
21. lan ildo: Mugikortasun elektrikoa	68
22. lan ildo: Mugikortasun planak udaletan eta enpresetan	69
23. lan ildo: Pertsona guztiei mugitzeko eskubidea bermatzea	70
3. arloa. Pertsonak	73
Herria = lurraldea + pertsonak	74
13. ardatza. Zainketak.....	74
24. lan ildo: Zainketen tokian-tokiko ekosistemak	75
14. ardatza. Jendarte-kohesioa (jendarteratzea eta jendarte politikak)	78
25. lan ildo: Harrera herriak.....	80
26. lan ildo: Jendarte-politika.....	80
27. lan ildo: Etxebizitza inklusioa, ardatz nagusi.....	81
28. lan ildo: Guztiona dena	82
29. lan ildo: Politika feministak	83
15. ardatza. Kultura identitatea	85
30. lan ildo: Kultura aniztasuna.....	85
31. lan ildo: Kultura sektorea.....	86

16. ardatza. Euskara	87
32. lan ildo: Ezkerraldean euskaraz	87
17. ardatza: Hezkuntza	88
33. lan ildo: Eskola komunitarioa, barneratzailea eta euskalduna.....	90
18. ardatza. Osasuna.....	91
34. lan ildo: Osasun osoa eta komunitarioaren eredia	93
Gobernantza kooperatiboa	96
121 ekimen Ezkerraldea justu eta aberatsagoa lortzeko bidean.....	98
Proiektu eragileen zerrenda.....	105

Ezkerraldea 2030

Plan Estrategikoa



Aurkezpena



Ezkerraldea gara

Atzera begiratzuz, nostalgiarik gabe...

Barakaldo, Sestao, Portugalete eta Santurtzi Nerbioi edo Ibaizabal itsasadarraren ezkerraldean dauden lau udal-erri dira. 215.000 biztanle dituzten herriak, hiriburuen atzetik Euskal Herriko eskualderik populatuena osatzen dutenak. Ongi definitutako lurraldea da, nortasun propioa duena, eta, aldi berean, koherentzia geografiko eta soziologikoarekin Bilbo Handia edo Bizkaiko hirigunea izenez ezagutzen den hiri-aglomerazioan integratzen dena. Ezkerraldea gara.

Herodoto historialariak idatzi zuen Egipto Niloren oparia zela, herrialde osoa ibairen urak eta zikloek definitzen baitzuten. Herodoto parafraseatuz, esan dezakegu Ezkerraldea industriaren oparia izan zela. Fabrikak gure Nilo izan ziren. **Ezin da ulertu gure eskualdea industrializazio-prozesurik gabe.** XIX. mendean zehar, gertaera politiko, ekonomiko eta teknologikoen siderurgia-jardueraren hazkunde esponentziala eragin zuten. Episodio horrek Trianoko mendietako meategieak eta Bizkaiko Labe Garaiak enpresa gure lurraldearen ardatza izan ziren, Ezkerraldea erabat eraldatu baitzuten.

Burdinaren meatzaritza eta haren nazioarteko merkataritza, altzairuaren fabrikazioa eta ontzigintza indarrez finkatu ziren eskualdean. Industrializazioa hedatu egin zen, eta biztanleria ugartu egin zen immigrazioarekin. Ezkerraldea XX. mendearen lehen erdian Euskal Herriko eta Estatu osoko industriagune garrantzitsuena izan zen siderurgia-, metalurgia- eta ontzigintza-arloan. Prozesu honen kontakizuna Ezkerralde industrialaren eta burdinaren euskal zibilizazioaren sorrera azaltzen duen benetako epopeia da, hori gabe ezin baita ulertu Euskal Herri modernoa. Aurrerapen ekonomikoaren historia bat, baina baita klase-borrokarena ere.

Joan den mendeko 50eko hamarkadatik aurrera, ezkerraldeko industriak beste hedapen-ziklo bat bizi izan zuen, aurrekoa baino biziagoa. Enpresak hazi egin ziren eta biztanleria biderkatu. Lurraldea lantegien eta etxeen continuum bat bilakatu zen. Larrialdiko hirigintza eredu nagusitu zen, eskura zegoen lur guztia kolonizatuz. La Naval, AHV, Euskalduna, Babcock Wilcox eta La General... lantegi itzelak bilakatu ziren, eta Ezkerraldean eta antzeko ingurune ekonomiko eta urbanistikoan (Zorrotza, Erandio, Meatzaldea, ...) Hauxe izan zen milaka langileren bizitokia.

Ezkerraldeko kulturak eta ekosistema industrialak trakzio-efektua eragin zuten herrialdeko beste leku batzuetako jarduera industrialaren garapenean. Gure herrian enpresa txikiak eta kooperatibak ugartzen ari ziren, eta multinazional handiak ere iristen hasi ziren. Industriari esker, euskal probintziak Estatu osoko aberatsenak bihurtu ziren. **Gaur ezagutzen dugun Euskal Herria, neurri handi batean, industrializazio prozesua hari zor diogu.**

50., 60. eta 70. hamarkadak hazkunde- eta oparotasun-urteak izan ziren Ezkerraldean. Baina badago alde ilun bat ere prozesu horretan: lan-esplotazioa, deserrotzea, desberdintasuna, diktadura, ingurumenaren suntsipena, kutsadura, hirigintza- eta ekipamendu-gabeziak, gizarte patriarkal bat non emakumeek mendeko lekua betetzen zuten inolako autonomia eta protagonismorik gabe. Industrializazio-prozesuaren argi-ilunez jabetu behar gara, garai honen idealizazioa saihestu behar dugu. Hala ere, garai hartan gure eskualdea bizimodu hobearen bila zebiltzan milaka familiaren jomuga izan zen, eta horietako gehienek lortu zuten.

Baina 70eko hamarkadako nazioarteko krisi ekonomikoek gogor jo zuten Ezkerraldeko industria-eredua. 80ko hamarkadan, Europar Batasunean sartzeko prozesuak ere kalte egin zien euskal industriaren interesei. Euskal

oligarkia, errentista eta protekzionismoan murgilduta aberastera ohitua, ez zen modernizazio-prozesu bat aktibatzeko gai izan. Aldi berean, Estatuko eta Euskadiko botere politikoeek Ezkerraldeko industriaren etorkizunari muzin egin zioten.

80ko hamarkadan eta 90eko hamarkadaren hasieran epopeia berri bat idatzi zen, Ezkerraldeko zibilizazio industrialaren amaiera kontatzen duen alderantzizko epopeia. Une kritikoa da Ezkerraldearentzat. Industria-garaiko elementu negatiboenetako batzuekin batera, hala nola ingurumenaren degradazioa edo hirigintza-kaosa, enpresen itxierarekin eta langabeziaren agerpenarekin hasi ziren testuingurua osatzen. Fabrika handiak ixten hasi ziren, industria-hondakinei lekua utziz. Ehunka gazteren heriotza eragin zuen heroinaren izurritea gertatu zen. Euskal tentsio politikoa bere gordintasun osoarekin azaleratu zen Ezkerraldean.

Testuinguru horretan, EAJk eta PSOEek industria zaharraren itxiera justifikatu zuten, inoiz iritsi ez zen birmoldaketa eta modernizazio baten izenean. **Industria-birmoldaketa agindu zuten, baina industria-eraipe-na eman ziguten.** 90eko hamarkadaren erdialdean, egoera ekonomiko globalaren hobekuntzak eta higiezinaren boom hasiberriak egoera leundu zuten. Langabeziak behera egiten zuten, baina lan-baldintzak prekarizatu ziren ere. Industria-jarduerak eragindako kutsadura gutxitzen zen, eta ingurumenarekiko kontzientzia hasiberriak ingurua lehengoratzeko jarduketak ekarri zituen. Fabrika itxietako lursailak etxebizitza bihurtzen ziren askotan, higiezinaren burbuilak sortutako aberasteko aukerak aprobetxatuz. Ingurunea atseginagotzen zen. Ekonomiak arnasa apur bat hartzen zuten.

Baina ez zen eredu ekonomiko berririk egon Ezkerralderako. Ez zegoen, ez gaitasunik, ez interesik. Madril-en agintzen zutenentzat, beste zonalde batzuek zuten lehentasuna, eta hemen agintzen zutenentzat berriz, Euskal Herria, edo *Euzkadi*, Basurtun amaitzen zen. Eskualdeari alternatiba ekonomikoa emateko zantzu bakarra merkataritza-gune handiak jartzearen aldeko apustua izan zen. Aukera honek elementu positiboak baino negatiboak bazituen ere, enpleguaren prekarizazioan eta tokiko merkataritzaren desagertapenean zuten eraginagatik.

Hori guztia egin zen kalitatezko enplegua sortzeko inguruko prestakuntza eta tradizio industrialak aprobetxatu gabe. Eta horrela daramatzagu azken 25 urteak. Ez dago eredu ekonomikorik Ezkerralderako, ez dago lurralde-plangintza ekonomikorik ezta inbertsioak erakartzeko politikarik, zerbitzuen ekonomiaren tranpatik ateratzeko. EAEko industria pisu gutxienean egonik, pobrezia, prekarietatearen, langabeziaren, etxebizitzaren eta prestakuntzaren adierazle ekonomikoek herrialdearen atzean jartzen gaituzte. Azken hamarkadetako balantze gordina da: Ezkerraldea tren-makina izatetik azken bagoi izatera igaro da.

... Ilusioz aurrera begira

Enplegu osotik langabezia-tasa altuenetara; biztanleria erakartzetik galtzera; epizentro ekonomiko izatetik periferiara; trakzio-eskualde izatetik loleku izatera. Hori da Ezkerraldeak azken hamarkadetan izan duen errealtate gordina, bilakaera gogorra. Etsi edo aurre egin diezaiokegu, baina ezin dugu errealtate hori ukatu. Eta hori dinamika ekonomiko jakin batzuen ondorio da, neurri batean kanpokoak, baina baita Ezkerralde industrial bat defendatzeko borondate politiko faltaren ondorio ere.

80ko eta 90eko hamarkadetako industria-eraipenarekin batera, birmoldaketari buruzko erretolika nagusitu zen, desagertzeaz zegoen industria modernoago batekin ordezkatzeko hitza ematen zuena. Baina ez zen egin. Alde horretatik, ez zen apustu politikorik egin. PSOEek eta EAJk beste eremu batzuk ekonomikoki sustatzea erabaki zuten.

Une honetan, Ezkerraldean dauden industria-enpresa gutxi gehienak beste garai batetik bizirik ateratakoak dira, eta ez ezarpen berriko enpresak. **Ia ez dago goi-mailako teknologia-osagaiko sektoreetako enpresarik.**

Desindustrializazioaren hasierako uneetan izen ponpoxo eta emaitza eskaseko planak aktibatu ziren Ezkerraldean. Egia esan, gobernuek interes handiagoa zuten industria eraipenaren aurrean eztanda soziala saihesteko, eredu produktibo berri bat aktibatze baina. Eta egoera post-industrial berria gauzatutzat onartu ahala, plan bereziak ere desagertu egin ziren. **Ezkerraldea langabezia-, pobrezia- eta prekarietate-tasen buru izatea bilakatu zen normaltasun berria.** Ezkerraldea zerbitzuetan eta merkataritza-guneetan zentratuta egotea bilakatu zen normaltasun berria. Ezkerraldeko milaka eta milaka biztanle goizero beste eskualde batzuetako lantokietara joatea bilakatu zen normaltasun berria. Ezkerraldeak 60ko hamarkadako hirigintza-eredu batean harrapatuta jarraitzea bilakatu zen normaltasun berria. Ezkerraldeak Bizkaiko eta Euskal Herriko gainerako lurraldeek baino bizi-kalitate txarragoa eta maila sozioekonomiko baxuagoa izatea bilakatu zen normaltasun berria.

Zoritzarrez, Ezkerraldearen berrindustrializazioaren aldeko apustua egiteko borondate instituzionalik eza ez da iraganeko zerbait. Gaur egun, jarraitzen dugu ikusten nola birkalifikatzen diren industria lursailak supermerkatuak (Costco) edo biltegiak (Amazon) eraikitze; nola onartzen den ontzigitzaren sektorea (La Naval) desagertzea; nola alferrik galtzen den lurzoru estrategikoaren erreserba zentro logistikoak (Mercabilbao) ezartze...

Ezkerrak eta gizarte mugimenduek industria desagitearen aurka borrokatu zuten eta hamarkadatan zehar Ezkerralde post-industrialaren arazoei aurre egin diete. Hala ere, gehienetan, ondorioei aurre egitera bideratu dira borroka (bazterkeria, prekarietatea, enpresen itxiera), kauei aurre egitera baino (Ezkerralderako eredu sozioekonomikorik eza). Plan Estrategiko hau bi alderdietan ekarpenak egiteko borondatearen emaitza da, arazoaren sustraira joatearen, Ezkerralderako eredu sozio-ekonomikoa berreraikitze ekarpenak egitearen eta hortik sortutako arazo ugariak zuzentzearen emaitza. Erantzunak integrala izan behar duela uste dugulako.

2015eko maiatzean, EH Bilduk proposamen bat aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean, Ezkerraldeko egoera sozioekonomikoa aztertze eta suspertze neurriak proposatzeko ponentzia bat era zedin. Gainerako taldeekin negoziatu ondoren, proposamena onartu egin zen. Bi urtez, adituak, gizarte-eragileak eta erakundeetako ordezkariak agertu ziren batzorde horren aurrean, beren analisiak eta proposamenak azaltzeko. Azkenik, 2018an, ponentziak bere ondorioak onartu zituen, eta Legebiltzarraren osoko bilkurak berretsi egin zituen. Bertan, eskualdean berehalako inbertsio-neurriak hartzeko premiazko talka-plan bat egitea eskatzen zen. Bestalde, Suspertze Sozioekonomikorako Erakunde arteko Plan Estrategikoa egiteko eskatu zen.

2021eko uztailan, Bizkaiko Foru Aldundiak Ezkerraldea-Meatzaldea Eskualdeko Plan Estrategikoa (EM-EPE) aurkeztu zuen, izan ere erakunde hau izan baitzen plana egiteko ardura bere egin zuena. Legebiltzarraren aginduak argi eta garbi eskatzen zuen Plana integrala izatea eta elkarriketa sozial zabal eta barneratzaile baten bidez egitea. Zoritzarrez, EAJk gobernatzen dituen erakundeek ez dute bi eskaeretako bat ere bete.

Plana egiteari dagokionez, Legebiltzarrak adierazi zuen *“funtsezkoa da ahalik eta parte-hartze zabalena bermatzea eragindako eskualdeetako sentsibilitate politiko-sozial guztiei, interesa duten erakunde eta talde guztiak barne hartzeko”*¹. Hala ere, EM-EPEa egiteko, Aldundiak instituzio organoak ez ziren 13 eragileren partaidetza baino ez zuen izan, ia guztiak enpresa arlokoak. Erabat baztertuta geratu ziren alderdi politikoak, sindikatuak eta gizarte-eragileak. Herritarren parte-hartzeari dagokionez, argi dago gogorik gabe eta espedientea betetzeko

1 Ezkerraldeko Txostena. 85. orrialdea

helburuz baino ez zela egin. 14 egun eman ziren proposamenak posta elektronikoz bidaltzeko 2020ko urrian, pandemiaren gailurrean, ekimena jakinarazteko inolako ahaleginik egin gabe.

Baina ez betetzea ez zen gertatu soilik formetan, funtsan ere gertatu zen. Legebiltzarrak onartu zuen *“Susper-tze Sozioekonomikorako Erakunde arteko Plan Estrategikoak alderdi sozioekonomiko nagusiak bildu behar ditu. Horrek lan zabal eta konplexu bihurtzen du, eta dimentsio guztiek behar duten tratamendua izan dezaten, komenigarria litzateke atalka garatzea. Ondorioz, hamar lantalde edo mahai sektorialak hiru ardatzen inguruan antolatuko dira (Ekonomia, Lurraldea eta Pertsonak). Planak ikuspegi osoa edo holistikoa izan behar du eskualdeei, arazoei eta konponbideei buruz. Lurraldea, pertsonak eta ekonomia izan behar dira azterketaren eta konponbidearen ardatzak”*²

Baina Foru Aldundiaren EM-EPEak, egoeraren eta esku hartzeko bide posibleen azterketa zabal eta partzialki baliozkoa egin arren, 6 proiektu eragile baino ez ditu proposatu, proposamen integral bat egiteko eskaera saihestuz: *“Ezkerraldea-Meatzaldearen Erakundearteko Plan Estrategikoa hasieratik planteatzen da fokua proiektu kopuru mugatu batean identifikatzeko eta jartzeko premisarekin. Proiektu horiek Proiektu eragile deitzen dira, 2030erako Eskualdearen etorkizuneko Ikuspegia eraldatzeko eta eragiteko eta adostutako eskualde-erronka estrategiko nagusiak lortzeko gaitasuna dutelako.”*³

Planerako baliabideen zuzkidura ere ez dago eskualdearen dimentsioaren eta bere beharren mailan. 211 milioi, erakunde guztien artean, hiru urtetan, ez da Ezkerraldea bezalako eskualde bateko inbertsio arruntetatik ateratzen den kopurua (Planak, gainera, Meatzaldea barne hartzen du). Bestalde, 135 milioi euro EM-EPE horretatik kanpo diseinatutako ekimenei dagozkien, hala nola Abantoko Parke Teknologikoari, aurretik proiektatuta baitzegoen, edo lurzoruen deskutsatzeari.

Finean, erakundeek aurkeztu duten EM-EPEak ez die erantzuten ez Legebiltzarraren aginduari, ezta Ezkerraldearen beharrei ere. Ez da modu parte-hartzailean eta integratzailean egin, ez da integrala, eta ez dago behar adina funtsik. Ez da Ezkerraldeak behar duen plana.

Hortik abiatuta, EH Bilduk kritikatik haratago joatea erabaki zuen. EAJk gobernatzen dituen erakundeak ez badira gai eskualde honi berreskuratzeko eta berrindustrializatzeko proposamen integral bat eskaintzeko, ezta herritarrekin eta gizarte-eragileekin hitz egiteko ere, guk egingo dugu. Hausnarketa hori da dokumentu hau sortu duen **Ezkerraldea Gara!** prozesuaren jatorria. Badakigu mugak ditugula. Ez ditugu, esate baterako, erakunde baliabideak dedikazio osoko pertsona kopuru jakin bat zeregin horretara bideratzeko, ezta aholkularitzak, ikasketak edo kanpoko profesionalak kontratatzeke ere. Era berean, ez dugu Plan honetan jasotako proposamenak berehala aktibatzeke behar den indar-korrelaziorik. Hala ere, uste dugu haren lanketa eta edukia pedagogia politikoko ariketa bat direla, gauzak beste era batera egiteko aukera egon badagoela erakusteko, anbizioarekin, parte-hartzearekin eta bokazio estrategikoarekin, alegia.

2022ko maiatzean EH Bilduk Ezkerraldeko 200 gizarte eragileri Ezkerraldearen egoerari eta etorkizunerako proposamenei buruz hitz egiteko gonbidapena luzatu zien. Kolektibo sozialek, sindikatuak, enpresa-batzordeak, fundazioak, kirol- eta kultura-taldeak, enpresek eta 100en bat elkartek proposamena onartu eta beren ekarpenak egin zizkiguten. Elkarrietzeta-prozesu aberasgarria eta hezitzailea.

Lantalde bat arduratu zen bilera horiek kudeatzeaz eta ekarpenak laburbiltzeaz. 2022ko udazkenean, sintesi

² Ezkerraldeko Txostena. 84 eta 85. orrialdeak

³ Ezkerraldea-Meatzaldea EPE. 43. orrialdea

Ezkerraldearen egoeraren analisia

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen analisia 2014an:

Ezkerraldea Erkidegoaren azken tokian adierazle nagusietan

Krisi ekonomikoaren testuinguruan EAeren baitako lurralde desorekak.

2014ko iraila. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Dimentsioak eta adierazleak	urtea	A1*	A2*	B1*	B2*	B3*	B4*	B5*	G1*	G2*	G3*	G4*
Biztanleriaren pisua (%)	2013	2,0	12,7	15,9	5,9	5,6	7,4	18	2,9	2,5	21,9	5,34
Egitura demografikoa												
1. Biztanleriaren aldaketa (1.000 biztanleko)	2013	-1,7	-3,8	-6,5	2,6	2,7	1,3	-1,5	4,1	3,2	2,0	3,0
2. 75 urte eta gehiagoko pertsonen aldaketa	2013	9,7	9,2	12,8	9,9	9,5	8,9	11,3	10,9	12,1	10,1	10,2
3. Mendekotasun-tasa	2013	51,8	50,6	55,5	52,4	51,7	51,0	52,8	56,1	58,0	54,5	57,1
Biztanleriaren mugimenduak												
4. Ugalkortasun-tasa orokorra	2012	44,3	44,2	35,8	44,0	44,2	39,6	40,2	45,4	46,1	41,7	50,0
5. Estatutik kanpo jaiotako pertsonen proportzioa**	2013	6,0	11,1	10,2	8,1	7,6	8,1	6,0	6,5	7,9	8,4	7,6
BPG eta lehiakortasuna												
6. Biztanleko BPG	2010	32.667	31.943	28.943	25.191	35.183	38.175	25.129	37.981	28.342	29.328	31.558
Lan-merkatua												
7. Okupazio-koefiziente	2011	67,8	64,4	59,5	63,6	65,5	63,5	61,4	68,9	65,4	67,2	69,1
8. Erregistratutako langabezia-indizea	2013	15,3	16,8	18,8	12,8	13,7	13,3	19,3	12,1	14,9	14,0	12,9
Egitura eta dinamismo profesionala												
9. Industria-sektoreko enpleguen proportzioa	2013	48,6	25,0	4,5	29,1	38,8	18,2	18,0	47,1	36,3	16,4	42,5
10. Establezimendu kopurua 1000 biztanleko	2013	77,3	78,5	93,8	74,8	76,5	88,0	65,4	69,1	76,3	91,4	80,7
Errenta eta pobrezia												
11. Batez best. errenta pertsonala	2011	19.788	20.206	19.787	19.909	19.071	23.234	16.817	20.891	19.515	20.401	20.637
12. Benetako pobrezia-tasa	2012	2,2	6,2	9,5	2,9	2,4	5,1	5,8	2,0	2,2	4,1	4,5
Gizarte-prestazioak eta gastu publikoa												
13. DSBE jasotzen dutenen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	20,1	25,3	43,8	24,3	20,4	22,5	32,2	12,9	22,2	18,2	15,3
14. Udalen biztanleko gastu arrunta	2011	1.060	1.273	1.175	957	1.013	996	1.005	1.043	908	1.107	951
15. Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa	2011	615	914	802	800	568	557	809	697	691	558	1.103
Etxebizitza												
16. Etxebideko etxebizitza-eskaerak (1.000 biztanleko)	2013	25,0	31,9	53,2	32,6	28,7	45,5	43,2	28,5	29,0	48,4	25,6

* A1: Aiala; A2: Vitoria-Gasteiz; B1: Bilbo; B2: Bizkaiko Kostaldea; B3: Durangaldea; B4: Eskuinaldea; B5: Ezkerraldea; G1: Debagoiena; G2: Debarrena; G3: Donostialdea; G4: Tolosa-Goierri;

** Adierazle horretan balio handienak dituzten eskualdeak egoera okerragoan daudela pentsatu da, pertsona-kolektibo horren beharrei behar bezala erantzuteak erakundeentzat ekar dezakeen erronka dela eta, berez fenomeno negatibotzat hartu gabe.

2014an, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak azterlan bat egin zuen 2008ko krisiak Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetan izan zuen eraginari buruz. Ezkerraldea (taulan, B5) eta Bilbo (B1) izan ziren adierazle sozio-ekonomiko txarrenak izan zituzten eskualdeak. 2021ean Euskal Herria Bilduk Legebiltzarrean eskatu zuen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari beste azterketa eguneratu bat eska ziezaion: EA.Jk eta PSOEk kontra bozkatu zuten. Ez zaie gustatzen errealitateak haien propaganda zapuztea.

Plan honen sarrera gisa, datu sozial eta ekonomiko garrantzitsuenen azterketa egin dugu, informazio berriena hainbat iturritatik bilatzen saiatuz. Benetan, emaitza espero zena da. Ezkerraldeak oso datu kezkarriak ematen ditu eta horregatik asmo handiko eta lehentasunezko ekintza politiko baten beharra berresten dute.

Eskualdearen diagnosia


Atal honetan, Ezkerraldeak hainbat eremutan gaur egun duen egoeraren datu argigarriak eskaintzen dira: adierazle demografikoak, egoera ekonomikoaren adierazleak, herritarren bizi-mailari buruzko adierazleak...

a. Biztanleria adierazleak

Ezkerraldean, hau da, Barakaldo, Sestao, Portugalete eta Santurtzi udalerrietan, 2022an **215.831 pertsona** bizi dira (112.358 emakume eta 103.473 gizon), hau da, Bizkaiko biztanleriaren % 18,94⁴.

Biztanleriaren zahartze argia duen eskualdea da, bai jaiotza-tasari buruzko datuei dagokienez, bai 65 urte-tik gorako pertsonen datuei dagokienez. Zehazki, EUSTATen datuen arabera, 2010ean jaiotza-tasa 9,31koa zen, eta 2021ean 5,85koa⁵; 65 urtetik gorakoak biztanleria osoaren % 20,8 ziren 2008an, eta 2022an % 24,84⁶.

Bestalde, **biztanleria-dentsitate oso handiko eskualdea da**; izan ere, Bizkaiko biztanleria-dentsitatea 514,35 pert/Km2-koa da, eta Ezkerraldekoa, berriz, 5.321,12 pert/Km2-koa⁷.



4 Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal Estatistika

5 Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistika

6 Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal Estatistika

7 Iturriak: EUSTAT (Biztanleen Udal Estatistika) eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

b. Jarduera ekonomikoari buruzko adierazleak

Eskualdeko egoera ekonomikoari dagokionez, lehenik eta behin azpimarratu behar da Ezkerraldeak Bizkaiko biztanleriaren % 18,94 hartzen duela, baina **lurralde historikoko BPGaren % 12,13 dela**.⁸

Egitura ekonomikoari dagokionez, **Zerbitzuen Sektorea** da nagusi argi eta garbi, 2020an eskualdeko jarduera osoaren % 84,63 baitzen BEGaren (Balio Erantsi Gordina) terminoetan, eta haren pisua haziz joan da urteen poderioz. Bestalde, Industria eta Energia Sektoreak (2020an % 7,55) eta Eraikuntza Sektoreak (% 7,72) pixkanaka behera egin dute urteetan zehar⁹.

Era berean, aipatu behar da eskualdearen egitura ekonomikoa **tamaina txikiko establezimenduak** dira nagusi: 2022an 20 langile baino gutxiagoko establezimenduak 11.568 ziren, 100 eta 249 langile arteko eta 250etik gorako establezimenduak, ordea, hurrenez hurren 38 eta 17 baino ez ziren bitartean¹⁰.

Bestalde, establezimenduen edo jarduera ekonomikoen kopuru orokorra kontuan hartuta, **jarduera ekonomikoa ahuldu egin da**. 2018an 12.376 establezimendu zeuden, 1.000 biztanleko 56,82 establezimendu, eta 2022an 11.919; hau da, 1.000 biztanleko 55 establezimendu¹¹.

Hala ere, eskualdea prest dago jarduera ekonomikoa hartzeko; izan ere, 2021eko datuen arabera, jarduera ekonomikoetarako lurzoruen 630,76 hektarea ditu, guztira 2.500 bizitegi-hektarea, hau da, lurzoruen % 15,5 jarduera ekonomikoetarako erreserbatuta daude; (Bizkaian, aldiz, % 2,32)¹².

c. Lan merkatuari buruzko adierazleak

Ezkerraldean 88.026 landun zeuden 2021ean, hau da, Bizkaiko biztanleria landunaren % 18,15. Eta **langabezia-tasa, hau ere 2021ekoa, % 14koa zen**, 14.357 langaberekin (7.920 emakume eta 6.099 gizon), Bizkaikoa (% 12,4) baino nabarmen handiagoa¹³.

Egoera horren aurrean, Ezkerraldeko Udalek, 2020an, 9.938.420€ inbertitu zituzten enplegua sustatzeko politikan. Hori horrela, urte horretan 13.348 langabetu izan zirenez, langabetu bakoitzeko 744,56 €-ko inbertsioa egin zen (Bizkaia osoan baino gutxiago, 842,99 € langabetu bakoitzeko)¹⁴, eta alde nabarmenak izan ziren eskualdeko Udalen artean. Bereziki nabarmendu zen Portugaleteko Udala, gainerako udalerriek baino askoz ere ahalegin txikiagoa egin zuelako.

d. Oinarrizko bizi baldintzei buruzko adierazleak: errenta, diru sarrerak eta etxebizitza

Errentaren eta diru-sarreraren adierazleen arabera, Ezkerraldeko pertsonen oinarrizko bizi-baldintzak Bizkaiko batez bestekoarekin alderatuta **okerragoak dira**.

Izan ere, **2020an, Ezkerraldeko biztanle bakoitzeko batez besteko errenta 18.606 €-koa zen, eta Bizkaikoa, berriz, 21.853 €-koa**¹⁵. Bestalde, bizi-baldintza minimo duinak lortzeko diru-sarrera nahikorik ez duten

8 Iturria: EUSTAT. Udal BPG

9 Iturria: EUSTAT. Udal BPG

10 Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa

11 Iturriak: EUSTAT. Biztanleen Udal Estatistika eta Jarduera Ekonomikoen Direktorioa

12 Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

13 Iturria: EUSTAT. Aktibitatearen Udal Estatistika

14 Iturria: EUSTAT-Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak eta LANBIDE

15 Fuente: EUSTAT. Pertsonen eta Familien Errentaren Estatistika

pertsonak, **DSBEa jasotzen dutenak, 5.853 ziren 2022ko azaroan**¹⁶; horietatik 3.376 emakumeak ziren eta 2.477 gizonak (eskualdeko biztanleriaren % 2,71); Bizkaian, aldiz, % 2,54k jasotzen zuten DSBEa.

Puntu horretara iritsita, **emakumeen kalteberatasun-egoera berezia** nabarmendu behar da. Errealitate hori argi eta garbi islatzen da bai aurreko atalean jasotako langabezia-datuetan, bai atal honetan jasotako errentari eta diru-sarrerei buruzko datuetan. Bietan ikusten da emakumeen artean **langabezia-tasa handiagoa dela, eta DSBEa eskatzen duten pertsonen tasa handiagoa.**

Bizkaiko lurraldearen egoerarekin alderatuta testuinguru sozial okerrago honetan, **etxebizitzaren alokairuaren prezioa etengabe igotzen ari da** 2018. urtetik, 2021. urtean balio hauetara iritsi zelarik¹⁷:

- **Barakaldo:** 2841 etxebizitza alokairu libreko erregimenean / etxebizitza-parkea alokairu libreko erregimenean – % 6,439 / alokairuaren batez besteko prezioa 667,5 €, hau da, 9,8 €/m² bakoitzeko
- **Sestao:** 756 etxebizitza alokairu libreko erregimenean / alokairu libreko etxebizitzaren parkea guztizko etxebizitza-parkearekin alderatuta – % 5,81 / alokairuaren batez besteko prezioa 611,1 €, hau da, 9 €/m² bakoitzeko
- **Portugalete:** 976 etxebizitza alokairu libreko erregimenean / alokairu libreko etxebizitzaren parkea guztizko etxebizitza-parkearekin alderatuta – % 4,910 / alokairuaren batez besteko prezioa 642,6 €, hau da, 9,4 €/m² bakoitzeko
- **Santurtzi:** 1.157 etxebizitza alokairu libreko erregimenean / alokairu libreko etxebizitzaren parkea guztizko etxebizitza-parkearekin alderatuta – % 5,522 / alokairuaren batez besteko prezioa 644,1 €, hau da, 9,4 €/m² bakoitzeko

Etxebiden, 2022an, honako hauek eskatu zuten etxebizitza babestua¹⁸:

- **Barakaldo:** 1.072 erosteko /alokairurako 4.298
- **Sestao:** 170 erosteko /1.192 alokatzeko
- **Portugalete:** 447 erosteko /alokairurako 1.819
- **Santurtzi:** 454 erosteko /alokairurako 1.818

e. Bizitegi- eta hirigintza-kalteberatasunaren adierazleak

Ezkerraldeko ia udalerri guztietan **etxebizitzaren batez besteko antzintasuna Bizkaikoa baino handiagoa da**, 48,8 urteko batez besteko antzintasuna baitu Bizkaiko batez bestekoak. Sestao oso modu negatiboan nabarmentzen da, bai antzintasunari dagokionez, bai ekipamenduari dagokionez¹⁹:

- **Sestao:** 55,6
- **Barakaldo:** 46,6
- **Portugalete:** 50,1
- **Santurtzi:** 45,7

Gainera, kasu askotan, bizigarritasun handiagoko estandarretara (igogailua eta berokuntza) egokitzeko esku-hartzeak behar dituzten etxebizitzak dira²⁰:

- **Barakaldo:** etxebizitzaren % 75ek igogailua dute, eta % 75,2k berogailua.
- **Sestao:** etxebizitzaren % 55,3k igogailua dute, eta % 63,3k berogailua.
- **Portugalete:** etxebizitzaren % 65,2k igogailua dute, eta % 74,4k berogailua.
- **Santurtzi:** etxebizitzaren % 75,2k igogailua dute, eta % 74,7k berogailua.

16 Iturria: LANBIDE

17 Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (EAEko Alokairu-Merkatuaren Estatistika AMEaren bisorea)

18 Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

19 Iturria: EUSTAT. Etxebizitzaren Udaltzako Estatistika

20 Iturria: EUSTAT. Etxebizitzaren Udaltzako Estatistika

Hirigintza-kalteberatasunari dagokionez, Ezkerraldean, 2020an, **41 auzo zeuden**²¹ guztira, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak **kalteberatasun handiko auzotzat sailkatuta**, eta 39.186 pertsona bizi ziren auzo horietan.

f. Hezkuntza-sistemaren adierazleak eta biztanleriaren ikasketa-maila

2021eko datuen arabera, Ezkerraldeak **goi-mailako ikasketak** dituen biztanleriaren % 14,64 du, **Bizkaia osoan baino nabarmen txikiagoa** (% 20,68).

Halaber, Bizkaikoa (% 6,89) baino txikiagoa da gure eskualdean **erdi-mailako eta goi-mailako ikasketak** dituzten pertsonen ehunekoa (% 5,58), eta DBHko heziketa-maila dutenen ehunekoa % 21.69 Bizkaian eta % 20,44 Ezkerraldean.

Erlazio hori **LHko titulua duten** pertsonen dagokienez baino ez da alderantzizkoa: Ezkerraldean biztanleen % 20,44 dira, eta Bizkaian, berriz, % 19,28²².

Hezkuntza-sistemako **hizkuntza-ereduei** dagokienez, urteak igaro ahala hezkuntza-ziklo guztietan D eredu indartzeko joera argia ikusten da, eta 2020-2021 ikasturteko egoera honako hau da²³:

Lehen Hezkuntza (titulartasun publikoko ikastetxeen % 50,3an banatuta, eta % 49,6an beste ikastetxe batzuetan, ikastoletan zein itunpekoetan):

- **A eredu:** 201 matrikula (% 1,7)
- **B eredu:** 4.489 matrikula (% 38,1)
- **D eredu:** 7.081 matrikula (% 60,1)

DBH:

- **A eredu:** 414 matrikula (% 5,3)
- **B eredu:** 3.257 matrikula (% 41,7)
- **D eredu:** 4.124 matrikula (% 52,9)

Lanbide Heziketa:

- **A eredu:** 729 matrikula (% 72,2)
- **B eredu:** 280 matrikula (% 27,7)
- **D eredu:** 0 matrikula (% 0)

Formazio-eskaintzari dagokionez, eskualdeak LHko 22 zentro ditu, industria-, zerbitzu, zaintza- eta administrazio-sektoreko espezialitateekin.

Eskola uzten duten ikasleen tasa %11,2koa zen 2018an EM-EPEak berak emandako datuen arabera, Bizkaiko tasaren gainetik zeina garai horretan %9,7koa baitzen beti aipatutako dokumentuaren arabera.

g. Hizkuntza adierazleak

Euskararen ezagutzari dagokionez, 2006. eta 2016. urteetako datuei erreparatuz gero, **euskara dakiten edo ia-euskaldun maila duten pertsonen kopuruak gora egin du**, nahiz eta eskualdea **Bizkaia osoko euskararen ezagutza-mailetatik urrun** egon²⁴:

21 Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
22 Iturria: EUSTAT. Hezkuntzaren Udal Estatistika
23 Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika
24 Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

- **Euskaraz dakiten pertsonak:** 41.100, 2006an (% 19,02), eta 54.253, 2016an (% 24,79).
- **Ea Euskaldunak diren pertsonak:** 47.375 2006an (% 21,92), eta 44.292 2016an (% 20,24)
- **Euskaraz ez dakiten pertsonak:** 127.601 2006an (% 59,05), eta 114.267 2016an (% 52,22).

h. Zaintza

Ezkerraldeak **titulartasun publikoko hiru egoitza ditu adinekoak zaintzeko**, Sestaoko eta Santurtziko udal-egoitzak, eta beste bat Sestaon, foru-titulartasunekoa (baina kudeaketa pribatua duena). **Titulartasun pribatuko 13 egoitza** ditu, eta 1.662 plaza eskaintzen ditu guztira.

Adinekoentzako **eguneko zentroen sarea** orekatuagoa da titulartasunari dagokionez: foru-titulartasuneko zentro bat (baina kudeaketa pribatua duena), 5 udal-zentro eta 4 zentro pribatu ditu, 483 plaza guztira.

Adinekoak zaintzeko sareak **etxebizitza komunitario pribatuetako 4 zentro** eta udal titulartasuneko beste bat ere baditu, 63 plazarekin guztira; **eta tutoretzapeko 3 apartamentu zentro**, titulartasun pribatuko 544 plazarekin²⁵.

Hori guztia kontuan hartuta, zaintzaren sektorean erabateko nagusitasuna dute titulartasun pribatuko zentroek.

Ondorioak: Erantzun integrala behar da

- BIZTANLERIA HANDIA
- DENTSITATE DEMOGRAFIKO HANDIA
- BIZTANLERIAREN GALERA
- ZAHARTZEA
- INDUSTRIA-JARDUERA TXIKIA
- KONTZENTRAZIOA ZERBITZU-SEKTOREAN
- BPG TXIKIA
- ERRENTA BAXUA
- ETXEBIZITZA ZAHARRA
- PRESTAKUNTZA-MAILA BAXUA
- LANGABEZIA-TASA ALTUA
- POBREZIA-TASA HANDIAK
- ZAINKETEN PRIBATIZAZIOA
- ...

Ezin dugu etsi. Ezin dugu naturalizat hartu hain atzean jarraitzea. Ezkerraldeak bultzada berri bat behar du, lehenik eta behin, bigarren mailako eremu gisa tratatzen gaituztenen aurka matxinatzea. Ezkerraldeak industrializazio plan bat eta suspertze integraleko proiektu bat behar ditu. Ezkerraldea zutitu egin behar da, berriz ere, eta etorkizuneko eredu ekonomikoa eskatu. Zaila da, baina posible eta beharrezkoa da. **“Ezkerraldea Gara!”** prozesua eta **“Ezkerraldea 2030”** dokumentu hau EH Bilduren ekarpenaren parte dira hori lortzeko.

²⁵ Iturria: “Funtzionamenduan dauden Pertsona nagusientzako zentroen zerrenda Bizkaian” BFAko Gizarte Ekintza Saileko Ikuskaritza eta Kontrol Saila

Ezkerraldea 2030

Brotxatik zintzilik

Aurkezpenean esan bezala, Ezkerraldea industriaren fruitua da. Ezin da ulertu gure eskualdea XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen erdialdeko bi ziklo industrializatzailerik handietatik abiatu gabe. Gure demografia, gure hirigintza, gure nortasuna, garai hartan sortu ziren.

- * **Ekonomia** eredu industrial baten inguruan egituratu zen. Gainera, ezaugarri espezifiko batzuk zituen industria bat; industria astuna deritzona. Meatzaritza, siderurgia eta ontzigintza dira eredu horren oinarriak. Industria honek eskulan asko erabiltzen zuen, gizonezkoena bakarrik. Kapital handia behar duten enpresa handien eredu. Horregatik, inbertitzeko gaitasuna zuen oligarkia baten esku geratu zen haren kudeaketa. Haren aurrean, langile klase antolatu eta sindikalizatu, betiere aberastasuna banatzeko dialektika batean.
- * **Espazio fisikoa** honela antolatu zen: lantegiek lursailik onenak bereganatu zituzten, espazio lauenak eta itsasadarretik hurbilen zeudenak; gainerakoa, berriz, azkar hazten ari zen biztanleria hartzeko erabili zen. Lur lauiak ez zegoenez, eta gero eta biztanle gehiago hartzeko etxeak eraikitzeko premia zegoenez, larrialdiko hirigintza sortu zen: etxebizitza-bloke handiak, eraikuntzak maldan dauden lursailetan, irisgarritasun-arazoak, ekipamendu eta berdegune falta, eraikuntza-kalitate eskasa. Kutsadura lehen mailako arazo bilakatu zen, eta natura-guneak suntsituta edo oso hondatuta geratu ziren jarduera ekonomikoa eta bertako azpiegiturak hedatu zirelako.
- * **Jendartea** oso patriarkala zen, eta lanaren generoaren arabera banaketa oso nabarmena. Era berean, bizitegi-bereizketa gertatu zen faktore ekonomikoen arabera, bizitegi-kalitateko eremu gutxi baitaude Ezkerraldean, eta baliabide ekonomiko gehien zituzten pertsonak beste eremu batzuetara joaten baitziren. Hezkuntza-sistemaren zati handi bat elizari lotutako ikastetxe pribatuaren esku zegoen. Biztanleria ia espainiar Estatu osotik zetorren, euskara eta euskal kultura erabat ezezagunak zituztelarik.
- * Hasiera batean, lan-esparrutik eta, geroago, beste eremu batzuetatik, **mugimenduak eta borrokak antolatu ziren gehiengoaren interesak defendatzeko**. 60ko hamarkadatik aurrera, sindikatu-mugimendu indartsu bat egituratu zen, eta, geroago, hainbat mobilizazio eta erakunde sortu ziren auzoetako arazoei, euskal kulturari, kutsaduraren aurkako eta ingurumenaren aldeko borrokari, emakumearen askapenari, gazteen arazoei eta abarri aurre egiteko.
- * 80ko eta 90eko hamarkadetan industria desagertzeak **desoreka handia eragin zuen errealitate sozio-demografikoaren eta ekonomikoaren artean**, eta jada ez zen errealitate bati erantzuteko diseinatu zegoen eremu batekin topo egin genuen. Egoera horrek, komikoa izan gabe, txiste bat dakarkigu burura non sabaia margotzen ari den pertsona bati eskailera kendu eta brotxatik zintzilik geratzen zen. Egoera ezezagunkorra eta muturreko prekaritatea.

Ezkerraldeko adierazle sozioekonomikoak, aurreko atalean ikusi dugun bezala, sistematikoki Bizkaiko eta Euskal Herriko batez bestekoa baino okerragoak dira. Hori ez da kasualitate edo abagune txarragatik, baizik eta lurraldearen konfigurazioaren eta eredu ekonomikoaren arteko haustura horren ondorio. Horregatik, etorkizunerako bi aukera baino ez daude Ezkerralderako: gure jarrera baztertua onartzea, gainerakoek baino aukera gutxiago dituzten herritarrak izatea onartzea, edo **eredu ekonomiko sendoago bat eraikitzea, biztanleei bizi-maila hobea bermatzeko**.

Zor historikoa Ezkerraldearekin

Bigarren aukera honek orain arte instituzioek izan ez dituzten hainbat gauza eskatzen ditu. Lehenik eta behin, borondate politikoa, egin nahi izatea. Bigarrenik, anbizioa arazoaren mailan. Asmatzea ere eskatzen da, batez beste guztion iritzia biltzeko gaitasunak erakarriko lukeena. Eta, azkenik, erronkaren neurriarekiko baliabide proportzionalak.

Borondatea, anbizioa, egokitasuna eta baliabideak. Ez da erraza lortzea, baina ezinezkoa da saiatu ezean. Ezkerraldearen inertzia sozio-ekonomikoak eta gaitasun endogenoak ez dute gaur egun horrelako prozesurik sortuko. Ekintza koordinatu batek, herri apustu batek bakarrik bultza dezake dinamika hori. **Euskal Herriak zor historikoa du Ezkerraldearekin.** Hemen jarri ziren herrialdearen garapen ekonomikorako oinarriak, eta oso kostu handiarekin egin zen, jendarteari eta ingurumenari dagokienez. Ezkerraldearen garrantzi demografikoa eta egoera sozio-ekonomiko delikatuak uztartzen dituen edozein lurraldek lehentasuna izan beharko luke euskal erakundeen aldetik. Baina, gainera, lurralde hori herrialde osoaren garapen ekonomikoaren motorra izan bada, justiziaz eta elkartasunaz ez ezik, Ezkerraldearekin zor historiko bat kitatzeko beharraz ere ari gara.

Eredu ekonomiko sendoa gizarte oparo eta justu baterako

Ezkerraldeak bere industria-jarduera berreskuratu behar du, eta hau industria-garapenaren abantailak aprobetxatzeko moduan egin behar du, baina iraganeko akatsetan erori gabe. Industria modernoa, jasangarria, teknologikoa eta aurreratua behar dugu, eskualdeko ekonomian eraginkorra izango duena. Horretarako, espazioak egokitu eta inbertsioak erakarri behar dira, eta, aldi berean, ekonomia aktibatzeke dinamika endogenoak sortu behar dira.

Baina ez dugu ahaztu behar ekonomia pertsonen bizitzaren zerbitzura dagoen tresna gisa ulertu behar dela beti. Helburua ez da BPGa, baizik eta bizi-kalitatea, bizitzaren kalitatea: jendarte-kohesioa, kultura-aberastasuna, berdintasuna, zaintza... Eredu ekonomiko sendo batek oinarri materialak bermatu behar ditu, ondo bizitzeko proiektuak garatu ahal izateko, pertsonen zoriontasuna bilatu ahal izateko, beren bizi-helburuak lortu ahal izateko, enplegu duina, etxebizitza, garraioa edo hezkuntza eta kultura lortzeko zailtasunak horretarako oztopo izan gabe.

Ikuspegia, Ekonomia, Lurraldea, Pertsonak

Sarrera politikoa eta Ezkerraldearen egoeraren diagnostikoa egin ondoren, Ezkerraldearen etorkizunaren aldeko apustu estrategikoa egin dugu, jarraian azaltzen den Ezkerraldea 2030 ikuspegian laburbiltzen dena.

Ikuspegi hori egia bihur dadin, anbizioz eta ikuspegi integral batekin lan egin behar dela uste dugu. Ez da nahikoa proiektu eragile batzuk egitea; aitzitik, beharrezkoa da problemak oro har konpontzea, horietako asko elkarri lotuta baitaude.

Lan hori hiru arlo nagusitan egituratu dugu: Ekonomia, Lurraldea eta Pertsonak, Legebiltzarreko Ponentzian proposatu genuen bezala, eta horren ondorioetan islatu zen bezala.

Lan-arlo bakoitzak sarrera bat eta lan-ildo batzuk ditu, eta, azkenean, ekimenetan zehazten dira.

Dagoeneko martxan dauden ekimen batzuk jaso ditugu, bai haien hobekuntza proposatuz, bai zuzenean onartuz; izan ere, Ezkerraldeak guztion ekarpenak behar ditu, eta ezin dugu inolako ekarpenik baztertu, nahiz eta beste gune ideologiko batetik etorri, gure eskualdearentzat ideia ona bada.

Ekarpen hau jarrera berarekin jasotzea gustatuko litzaiguke. Nolanahi ere, benetako hartzailea Ezkerraldeko jendartea da, eta, esan bezala, harekin hitz egiten jarraituko dugu.

Ezkerraldea 2030 ikuspegia

IKUSPEGIA: Ezkerraldea 5.0. industrian oinarritutako eredu ekonomiko adimentsu eta jasangarri baten inguruan berrasmatzen den eskualdea da, ekonomia industrialaren eta ezagutzaren aldeko apustua eginez; garraio publikoa ardatz duen komunikazio-sistema baten bidez egituratzen da, eta jarduera ekonomikoa eta erresidentziala harmonikoki uztartzen dituen lurraldearen diseinua lortzeko egituratzen du hirigintza; horrela, Ezkerraldeak bere biztanleei bizi-kalitatea, ingurumen berreskuratua eta oparotasun, berdintasun eta inklusio ingurune batean bizi-proiektuak garatzeko aukera eskaintzen die.

Ezkerraldea 2030

Plan Estrategikoa



1. arloa: Ekonomia





Ezkerraldea 5.0

Ezkerraldea industria astun tradizionalaren ereduaren garapenaren ondorio da XIX. eta XX. mendeetan. Eredu hori XX. mendearen amaieran desagertu izanak eskualdeak gaur egun dituen arazo handiak sortu ditu. Bizkaiko biztanleriaren ia % 20arekin, Ezkerraldeak lurraldeko BPGaren % 12 besterik ez du ekoizten. Ezkerraldean etorkizuneko edozein apustu egiteko, eredu ekonomiko propioa berreraiki behar da. Gaur egun, Ezkerraldeak ez du eredurik eta espezializaziorik, lurralde-politika zehatzik. Jarduera ekonomikoa eraikuntzan (BPGaren % 7,7) eta zerbitzuetan (% 84,6) zentratuta dago. Zerbitzu horiek industria-jarduera oso txikia duten biztanleriari eusten diote (hezkuntza, osasuna, merkataritza) (% 7,5). Gaur egun, industriak Ezkerraldeko BPGan duen partaidetza Bizkaiko eta EAEko batez bestekoaren herena da, zeina % 20tik gorakoa den.

Egoera horretan, industria-jarduera berreskuratzea da Ezkerraldearen bultzada sozio-ekonomikorako gakoa. Industriaren aldeko apustua ez da inertzia historiko baten ondorio, ezta iraganaren idealizazioarena ere, baizik eta ekonomia industrializatuek errenta-maila hobeak eskaintzen dituztela egiaztatu delako. Industriak balio erantsi handiagoa sortzen du, eta horrek soldata hobeak, zerga-bilketa handiagoa eta merkataritza-superabita ahalbidetzen ditu.

Jarduera industrialak izan behar du Ezkerraldea berrabiarazteko gakoa. Horrekin batera, energiaren eta biozientzien esparruan badira aukerak, biak ere ekonomiak eta jendarte globalek aurre egin beharreko eraldaketekin lotuta (trantsizio energetikoa, zainketa-ekonomia). Ekoizpen-jardueraren osagarri diren zerbitzu aurreratuak ere sustatu beharreko espazioa dira.

Merkataritzak eta gure errealitatera egokitutako turismo jasangarri batek osatzen dute eskaintza, lehen sektorearen sustapena ahaztu gabe; izan ere, pisu gutxiko sektorea da, baina indartu egin daiteke.

1. ardatza. Berrindustrializazio adimendua 5.0

Zerbitzu-ekonomien mesedetan industria modaz igaroa zela zirudien garai baten ondoren, gaur egun berriz ere aho batez aitortzen da ekonomia industrializatu baten balioa. Manufaktura-jarduera handia duten herrialdeek funtzionatzen dute, eta jarduera hori galdu dutenek hura berreskuratzeko planak egiten dituzte. Industriak balio erantsia sortzen du. Herrialde eta eremu industrializatuak besteak baino aberatsagoak dira. Industriak sortzen duen enplegu egonkor, eta oro har, ondo ordaindua, jendarte-kohesiorako faktore bat da.

Ezkerraldeak jarduera industrial berreskuratu behar du. Ez nostalgiagatik edo inertzia historikoagatik, baizik eta etorkizunagatik. Industria-jardueraren onurak berreskuratu behar ditugu. Baina haien arazoak berri ere badugu. Horregatik, industria moderno, aurreratu eta teknologiko baten aldeko apustua egin behar dugu, gizarte-eta ingurumen-faktoreei arreta emango diena.

Europar Batasunak, Akademiaren ekarpenetan oinarrituta, **INDUSTRIA 5.0** kontzeptua proposatu du eredu industrial berri bat definitzeko, teknologian oinarritua, baina baita ingurumen-mugekin lerrotatua eta pertsonengan zentratua ere.

“Industria 5.0 kontzeptuak ikuspegi desberdina eskaintzen du, ikerketa eta berrikuntzak industriari laguntzeko duten garrantzia nabarmentzen du, planetaren mugen barruan gizadiari epe luzera eskaintzen dion zerbitzuan.

5.0 Industriak aitortzen du industriak boterea duela enpleguaz eta hazkundeaz haraindiko helburu sozialak lortzeko, oparotasunaren hornitzaile erresiliente bihurtzeko, ekoizpenak gure planetaren mugak errespetatuz eta langile industrialaren ongizatea produkzio-prozesuaren erdigunean jar dezan.”²⁶

Industria aurreratu, jasangarri, teknologiko, sozial, berdintasunezko, erresiliente eta pertsonengan oinarritutako baten aldeko apustua egiten dugu. Industria 5.0 terminoa hartu genuen definitzeko, haren inguruan adostasuna lortzeko eta industria-garapeneko eredu hori Ezkerraldeko eragile sozial, ekonomiko eta politikoek partekatutako proiektu bihurtzeko. **Ezkerraldea 5.0**

1. lan ildoak: Espezializazio 5.0. arloen definizioa

5.0 industriaren esparru globalaren barruan, Ezkerraldeak sektore espezifiko batzuk bultzatu behar ditu, bere gaitasunekin bat etorritik. Kritika asko jaso ditzaketen arren, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) eta RIS3 euskal estrategia (Research and Innovation Smart Specialisation Strategy) ezinbesteko erreferentzia dira. Era berean, beharrezkoa da EM-EPEan jasotako ekarpenak kontuan hartzea, ekarpen hau ahal den neurrian batuketa eta osagarri moduan egiteko.

Ikuspegi integratzaile horretatik, Ezkerraldeak gutxienez zazpi arlotan bideratu behar ditu bere gaitasunak:

- **FABRIKAZIO AURRERATUA:** RIS3 estrategiaren zutabeetako bat da, eta zeharkako ardatza. Jarduera berriak ezartzea eta daudenak modernizatzea fabrikazio aurreratuaren aldeko apustuaren esparruan egin behar da.

²⁶ Industry 5.0. Towards a sustainable, human-centric and resilient European industry. Europako Batzordearen dokumentua. 2021eko urtarrila

- **ENERGIA BERRIZTAGARRIA:** RIS3 estrategiaren bigarren zutabea da. Petronor findegiak eta portuko energia-jarduerak gure ingurunean duten presentziak energia ekoizteko eta banatzeko nodo bihurtzen gaitu. Aldi berean, erregai fosilekin lotutako jarduera ugarik eredua eraldatzeko agertokiak planteatzera behartzen gaitu. Energiaren arloa Ezkerraldean garatu beharreko alderdi bat da, trantsizio bikoitz baten esparruan:
 - **TRANSIZIO ENERGETIKOA:** Energia kutsakorrek ekoiztetik energia berdeetara.
 - **BIDEZKO TRANSIZIOA:** Enplegua eta beronen kalitatea suntsituko ez duen prozesua.
- **BIOZIENTZIAK:** RIS3 estrategiaren hirugarren zutabeak ere garapen-eremu bat du Ezkerraldean, eskualdean osasun-zerbitzuak eta ikerketa medikoak garrantzitsuak baitira. Hala ere, konpondu egin beharko litzateke tresnen edo sendagaien ekoizpenari lotutako jarduera ekonomikorik eza, goraldi globalean dagoen eta garatu beharko litzatekeen sektorea baita.
- **ZERBITZU AURRERATUAK:** Zerbitzu aurreratuak manufaktura-jarduera hobetzeko osagarri garrantzitsuak dira. Garrantzitsua da Ezkerraldean finkatutako zerbitzu aurreratuak erakartzea eta hobetzea, bereziki ekoizpen-jarduerari lotutakoak. Aholkulariek, ingeniartzek, arkitektura-estudioek eta IKT zerbitzuek kokalekua izan behar dute.
- **ALTZAIRUGINTZA IRAUNKORRA:** Altzairua egitea izan zen Ezkerraldeko industriaren garapenaren oinarria. Oraindik enpresa indartsu batzuk daude sektore honetan, hala nola ACB edo Nervacero. Sektore hori oso ziklikoa da, krisi energetikoekiko kaltebera, eta lehia globalak asko eragiten dio. Hala ere, hori sustatzeko aukera dago, prozesuan eta produktuan dagoen teknologiaren eta ekoizpen iraunkorreko lidergoaren (hidrogenoa, elektrifikazioa...) aldeko apustua eginez.
- **EKO-PORTUA:** PORTUKO INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-EREMUA: Portua, bere funtzio logistikoaz gain, enpresak finkatzeko gune garrantzitsua da. Garrantzitsua da energia berriztagarrietan espezializatzeko joera duen jarduera horri eustea. Bokazio horrekin bat etorritik, portuaren jarduerak iraunkortasun-parametroekin lerrokatuta egon behar du, ingurumenean eragina izango duten ekintzak eta hedapenak saihestuz.
- **JENDARTE EKONOMIA:** Ezkerraldean gizarte-ekonomiak ez du izan herrialdeko beste eskualde batzuetan izan duen garapen-maila, eta are gutxiago industriaren arloan. Funtsezkoa da produkzio-eredu horrek ekonomia eta gizartea eraldatzeko duen gaitasuna aprobetxatzea, Ezkerraldea hobetzeko.



1. ekimena: Ezkerraldean industria-espezializazioko 7 eremu handi hartzea.

Proiektu eragilea

1. FABRIKAZIO AURRERATUA
2. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
3. BIO-ZIENTZIAK
4. ZERBITZU AURRERATUAK
5. ALTZAIRUGINTZA IRAUNKORRA
6. EKO-PORTUA
7. EKONOMIZA SOZIALA



2. lan ildoak: 5.0 Espezializazio arloekin lerrokatzeko planak

Espezializazio-arloak ezin dira izan desio-formulazio hutsak. Neurriak ezarri behar euren garapena lortzeko. Sektore bakoitzak bere berezitasunak ditu, baina, oro har, guztietan elkarriketa bat antolatu behar da, eragile instituzionalak, sektoreko enpresak eta jendarte-eragileak barne hartuko dituen, espezializazio-arloak garatzeko planak diseinatzeko.

2. ekimena: Espezializazio-arloetan jarduteko adostutako 7 plan diseinatzea

1. FABRIKAZIO AURRERATURAKO GAITASUN TEKNOLOGIKOAK HOBETZEKO PLANA
2. BIDEZKO TRANTSIZIORAKO ESTRATEGIA
3. OSASUN POLOA GARATZEKO PLANA
4. ZERBITZU AURRERATUETAN ESPEZIALIZATUTAKO EREMUEK ESKAINTZA-PLANA.
5. ALTZAIRU BERDEAREN PLANA
6. EKO-PORTUAREN PLANA
7. EZKERRALDERAKO EKONOMIA SOZIALAREN PLANA

3. lan ildo: Industria lurrak egokitu

Lurzorua ondasun urria da Ezkerraldean, eta are gehiago industria-lurzorua, jarduera horietan azalera handiak behar baitira. Ezkerraldean oraindik lurzoru asko abandonatuta eta/edo kutsatuta dago. Zortzi industrialdetan banatutako 280.000 m² librean aldean, 17.000.000 m² lurzoru potentzialki kutsatu daude²⁷.

Berrindustrializazio politika baterako kudeaketa egoki bat egitea beharrezkoa da, horretarako lurzoru industrialak egokituz eta babestuz, eta jarduera industrialak hedatzeko lurralde diseinua eginez.

3. ekimena: Ezkerraldeko lurzoru industrialen inbentarioa egitea

Eusko Legebiltzarrak, EH Bilduk eskatuta, Ezkerraldeko lurzoru industrialen inbentarioa egitea onartu zuen. Inbentarioa 2022 amaitu baino lehen entregatu behar zen, baina oraindik ez da amaitu. Informazio hori eskuratu ondoren, errazagoa izango da lurralde-plangintza egitea.

4. ekimena: Kutsatutako lurzoruak berreskuratze plan

EM-EPEaren arabera, lurzoru industrialak eraikitzea eta berreskuratzea da proposamen garrantzitsuenetako bat zuzkidura ekonomikoari dagokionez (60.000.000 €).

Ekimen hori babesten dugu, eta, gure ustez, ahalik eta industria-lurzoru gehien berreskuratu eta aktibatu behar da, horretarako funtsak handituz, beharrezkoa bada (adibidez, Next Generation funtsen bidez).

5. ekimena: Industrialdeak modernizatzeko plan integrala abian jartzea

Industrialde guztiak modernizatzeko, neurri hauek hartu behar dira:

- **Iraunkortasuna** (eraginkortasuna, aurrezpena, autoprodukzio energetikoa, elektrifikazioa)
- **Irisgarritasuna:** mugikortasun-planak, garraio publiko eta/edo partekaturako sarbidea, ibilgailu elektrikoetarako instalazioak, bizikletaz sartzeko bai eta ibilgailu elektriko arinak ere...
- **Teknifikazioa:** banda zabalerako sarbidea, digitalizazioa...
- **Enpresen energia-eraginkortasuna sustatzea,** Administrazioak Enpresako Energia Planak egitea exijituz.

6. ekimena: Lurzoru industrialak birkalifikatzea saihesteko akordioa

Industria-lurzorua ondasun urria denez, ez du zentzurik hura galtzeak, eta horren beharrezkoak ez diren beste jarduera batzuetara bideratzeak haren erabilera, hala nola logistikara eta hipermerkatuetara. Lurzoru industrialak jarduera komertzial eta logistikoetarako ez birkalifikatzeko konpromisoa hartu behar da.

7. ekimena: Espazio estrategikoak identifikatzea

Potentzial handiena duten espazioen aukeraketa egin behar da, proiektzio emateko eta haien sektoreagatik edo haien dimentsioagatik estrategikoak izan daitezkeen proiektuak ezartzea bilatzeko. Galindo, Portua, La Naval, Trapagako errepeidea, Burtzeñako parkea...

²⁷ Ezkerraldea-Meatzaldea EM-EPE. 47. Orrialdea. Ezkerraldea, Meatzaldea eta Erandioko 2019ko datuak.

8. ekimena: Bizkaia-Ibaizabal Parke Teknologikoa sortzea. [Proiektu eragilea](#)

Burtzeñako enpresa-parkeak urteak daramatza bertan behera utzita, eta azken hilabeteetan bakarrik ari dira aktibatze mugimenduei berriro ekiten. Gure ustez, gune hori Punta Zorrotzako gune eta Zorrotzaurre irlaren proiektu bateratu batean egituratu behar da, Teknologia-Parke handi bat eratzeke.



4. lan ildoak: Inbertsioak erakarri

9. ekimena: Invest Ezkerraldea: Ezkerraldea inbertsioak erakartzeko lehentasunezko eremu izendatzea

Eusko Jaurlaritzak, SPRIren bitartez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Ekonomia Sustapeneko Sailaren bitartez, Ezkerraldea inbertsioak erakartzeko lehentasunezko eremutzat joko dute. Horrela, enpresen ezarpena sustatzeko orduan, lehentasuna emango zaio eremu horri informazioari, erraztasunei, pizgarriei eta abarri dagokienez. “Invest Ezkerraldea” programa izango da eskualde honetara inbertsioak lehentasunez erakartzeko markoa.

(Laidoak saihesteko, beste herrialde batzuetako eskualde hondatuena identifika daiteke eta modu berean jardutea).

10. ekimena: "Indartu" planaren ebaluazio eta indartzea

Indartu Plana 2015ean sortu zen, eta, gaur egun, “2022-2027rako eskualde-helburuko estatu-laguntzei buruzko jarraibideek” eta “Estatutako 2022-2027 eskualde-laguntzen mapak” gidatzen dute. EBren araudia da, eta laguntza behar duten eskualdeei laguntzeko aukera ematen du. Azken edizioan 20 milioi euroko zuzkidura zuen, eta haren jarduera-eremua Ezkerralde zabaldua eta EAEko batez bestekoa baino % 10 gehiagoko langabezia-tasa zuten beste eskualde batzuk ziren. Txosten oso bat egiteko eskatzen da, emaitzak sorreratik bertatik baloratze-ko (sortutako enpleguak eta inbertsioa, enpresa onuradunak, inbertitutako zuzkidura, eta abar) eta inpaktua eta eraginkortasuna ebaluatzeko, plana eta zuzkidura ekonomikoa hobetzeko, hala badagokio, eta interes berezia jarritz plana ETEei (Enpresa Txiki eta Ertaina) eta mikroenpresei hurbiltzeko.

11. ekimena: Ezkerraldearekiko diskriminazio positiboko klausulak eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren programetan

Eusko Jaurlaritzak eta BFAk hainbat laguntza-programa dituzte sustapen ekonomikorako eta enpresetarako. I+Grako, nazioartekotzerako, prestakuntzarako eta digitalizaziorako laguntza-programak dira. Programa horietan baremazio-irizpideak sartzea proposatzen dugu, Ezkerraldeetik eskatzen dituzten enpresentzat eta pertsonentzat puntuazio gehigarria jasotzeko (eta batez bestekoa baino adierazle ekonomiko txarragoak dituzten beste eremu batzuentzat ere).

12. ekimena: Elkarrizketa-mahaia kooperatiba-mugimenduarekin, Ezkerraldean kooperatibismoa eta ekintzaitza kolektiboa indartzeko

Kooperatiba-mugimenduko erakunde eta entitateen artean partekatutako esparru bat sortuko da, Ezkerraldeko kooperatibismoaren errealitatea eta potentziala aztertzeko, eta eskualde horretan kooperatiben presentzia hobetzeko sustapen-neurriak aztertuko dira, industria-arloan arreta berezia jarritz.

13. ekimena: Toki-garapeneko agentzien ebaluazioa, koordinazioa eta hobekuntza

Garapen agentziek zeregin garrantzitsua izango dute eskualdeko sustapen ekonomikoan. Hala ere, eraginkortasuna ebaluatu eta hobetu behar da. Udalerrietako lau agentziek, CEDEMI-BIC-Ezkerraldearekin batera, beren jardueraren balorazioa egitea eta lankidetzak bideak aztertzea proposatzen da. Era berean, beharrezkoa da agentzia horiei eta BICari kanpo-ebaluazio bat egitea, zuzenak eta okerrak antzemateko. Baterako jarduketa-programetarako proposamenak sortzen badira, erakundeek behar bezala finantzatu beharko dituzte.

5. lan ildoak: Hobekuntzak formakuntzan

14. ekimena: Prestakuntza-eskaintza espezializazio-arloetara egokitzea.

Proiektu eragilea

Eskualdearen egungo eta etorkizuneko beharren diagnostikoa egingo da lan-arloan, prestakuntza-eskaintza egokitzeko, batez ere Lanbide Heziketaren esparruan. Beharrak ebaluatu ondoren, funtsezkoa da prestakuntzaren esparruko gaitasunak egokitzea langile kualifikatuen beharrari erantzuteko, batez ere 5.0 industriaren esparruan.

15. ekimena: LH zentroak modernizatzeko eta haietan inbertsioa egiteko plana

Eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeek beharrezko hobekuntzak jasoko dituzte plantilla, instalazioak eta ekipamenduak lan-aurreikuspenen ebaluazioan antzemandako beharretara egokitzeko. Hau erakundeen arteko finantzaketa berezia duen plan baten barruan burutuko da.

16. ekimena: Eskaerari egokitutako birkualifikazio-planak

Zailtasun handienak dituzten kolektiboak lan-merkatuan sartzeko birkualifikazioaren azterketa: iraupen luzeago langabeak, emakumeak, adineko langileak, baztertutako arriskuan dauden pertsonak, egungo langile-beharrak eta 5.0 industriarako orientazio estrategikoa baloratuz.

Kontuan hartuta eskualdeko egiturazko langabezia-tasa herrialdeko batez bestekoaren gainetik dagoela, enplegu-plan bat eta erakunde arteko funts berezi bat gaituko dira, aparteko aurrekontu-zuzkidurarekin, prestakuntzarako eta enplegurako.

17. ekimena: Eskaintza/gaitasunak/bokazioak hobetzea STEAM arloan

Bilakaera demografikoak langile falta eragingo du lan-munduan, bereziki sektore dinamikoenetan, hala nola teknologiaren munduan. STEAM eremua (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritzak, Arteak eta Matematikak) gazteentzako lanerako aukera-gunea da. Hala ere, arlo horrek ez du gazte kopuru nahikoa erakartzen, ezjakintasunagatik edo ikasgai batzuen zailtasunagatik. Eremu sozialean zein ekonomikoan aurreratuen dauden herrialdeek STEAM eremuan benetako indarguneak eta espezialitateak dituzte. STEAM arloen dibulgazio-programak bultzatu behar dira ikasleen artean, eta bereziki nesken artean, ikasgai hauek oso maskulinizatuta baitaude. Dibulgazio-programa horiek Ezkerraldean dauden hezkuntza-mota guztietan izan behar dute jomuga (bigarren hezkuntza, batxilergoa, lanbide-heziketa).

Alderdi horrek lotura estua du 1. LAN ILDOAREKIN (5.0 ESPEZIALIZAZIO ARLOEN DEFINIZIOA) aipatutako espezializazio-arloekin eta dokumentu honetan aurkeztutako ARDATZEKIN. STEAM eremuan trebatutako pertsonarik gabe, ezinezkoa izango da arlo horiek garatzea, ezta beharrezkoa den trantsizio sozial, digital eta ekologikoa ere

18. ekimena: Ikasketa nautikoen garapena

Itsasoarekin lotutako lanbideek beti izan dute pisua Ezkerraldean, baina lotura hori galdu egin da, nahiz eta Nautika Eskola bezalako erreferentziazko zentro bat izan. Errealitatea hau ez dator bat eskualdeko ezaugarriekin, izan ere itsasoko merkataritza-sektorea eskualdeko garapen ekonomikoan maila guztietan funtsezkoa baita, eta zerikusia duten lanbideek lan-irteera ona baitute. Funtsezkoa da eskualdeko gazteek ikasketa mota horiek ezagut eta hauta ditzaten bultzatzea. Aldi berean, garrantzitsua da praktikekin eta homologazioekin lotutako alderdi burokratikoak arintzea, prestakuntza-denbora laburragoa eta eraginkorragoa izan dadin.

2. ardatza. Energia



Energia ekonomiaren eta politikaren erdigunean kokatu da azkenaldian. Erregai fosiletan oinarritutako energia-eredua krisian sartu da, bai erregai horien izaera finituagatik, bai klima-aldaketan gero eta eragin nabariagoak dituelako. Bestalde, tentsio geopolitikoek prezioen krisia eragin dute energiaren esparruan, eta horrek, aldi berean, inflazio-olatu historikoa eragin du. Trantsizio energetikoa (ia) inork ukatzen ez duen beharra da. Hala eta guztiz ere, funtsezkoa da trantsizioa benetakoa izatea eta, ekoizpenaren esparruaz gain, sorkuntza- eta merkaturatze-sistema ere barnean hartzea, energia berriztagarria ekoizteko. Aldi berean, energia-balioaren kate osoaren kontrol publikoa ezarriko da, energiarako irisgarritasuna modu justu eta unibertsalean bermatzeko.

Garrantzitsua da, halaber, eraldaketa horrek dakartzan gizarte- eta lan-inplikazioei erantzutea, gure produkzio-ereduan pisu handia duten sektore batzuk bertan behera utzi edo mugatu beharko baitira. Funtsezkoa da prozesu hori modu ordenatuan egitea, eta trantsizio energetikoaren kostua langile-klaseen gain ez erortzeko alternatibak sortzea.

Trantsizio-prozesu horrek bete-betean eragiten dio Ezkerraldeari; izan ere, fintzeko, birgasifikatzeko eta ekoizteko instalazioak ditu, eta portuaren eremua (eolikoa, birgasifikatzailea eta ziklo konbinatuko zentrala) eta Petronor dira energia-sortzaile nagusiak. Inguru horretan zurrumurruak diren proiektuak daude, hala nola hidrogeno-korridorea edo Iberdrolaren elektrolizagailu-planta frustratua.

Horrekin guztiarekin, Ezkerraldeak erronka eta aukera bat du trantsizio energetikoan. Ezkerraldeko trantsizio energetikoak bektore hauek izan beharko lituzke gidari:

- Erregai fosilen ekoizpena pixkanaka murriztea.
- Energia berriztagarria sortzearekin lotutako elementuen ekoizpena etengabe handitzea (elektrolizagailuak, eguzki-plakak, makineria eolikoa).
- Energia berriztagarria (eolikoa, eguzki-energia, hidrogeno berdea) ekoizten duten instalazioak ezartzea.
- Garraio-sistemak arlo publikora, partekatura eta elektrikora igarotzea.
- Produkzio-ehuna egokitzea energia-kontsumoa murrizteko eta sorkuntza propioa sustatzeko.
- Energia berriztagarria ekoizteko sistema komunitarioak orokortzea.
- Etxebizitzetako energia-eraginkortasuneko planak.

6. lan ildoak: Bidezko trantsizioa

19. ekimena: Bidezko trantsizioa hitzarmena edo antzeko prozesua sinatzea.

Proiektu eragilea

Premiazko Ekintza Planak, zeina EBren Bidezko Trantsizio Estrategiaren barruan kokatzen den, epe motzeko erronkei erantzuna ematea du helburu, meategiak, ikatz-zentralak eta zentral nuklearrak ixten diren eremuetan. Eremu horietarako, Premiazko Ekintza Planak Trantsizio Justuko Hitzarmenak ezartzea eskaintzen du, itxierak prozesuaren amaieran enpleguan eta biztanlerian eragin negatiborik ez izatea helburu dutenak.

Ezkerraldeak ez du horrelako instalaziorik, baina, hala ere, bere inguruan findegi bat du, bere jardura murriztera behartuta dagoena, EBk hartu duen erregai fosilak pixkanaka abandonatzearen erabakiaren ondorioz. Portuan erregai fosilei lotutako instalazioak ere badaude, hala nola birgasifikazio-planta eta ziklo konbinatuko zentrala. Gainera, altzairuaren industriaren presentzia garrantzitsua du, gaur egun elektro-intentsiboa dena.

Horregatik, **Bidezko Trantsiziorako Hitzarmen** bat egiteko aukera aztertu beharko litzateke, berariaz diseinatuta dauden eremuekiko analogiaz. Figura juridiko horretara sartu ezean, antzeko prozesu bat garatu beharko litzateke. Hitzarmen ofizial batekin edo prozesu homologagarri batekin, Bidezko Trantsizioa dinamika hone-tarako aukera ematen du:

- Erregai fosilak uzteak ekonomian eta gizartean duen eragina saihestea.
- Enpleguaren kantitatea eta kalitatea mantentzea.
- Prozesua ordenan planifikatzea eta modu parte-hartzailean egitea.
- Prozesua finantzatzeko kanpoko funtsak eskuratzea.

20. ekimena: Trantsizio energetikoari lotutako hausnarketa prozesua

Trantsizio energetikoak aldaketa metabolikoak eskatzen ditu gure antolamendu sozialean. Herritarren deliberazioa gobernantza kooperatiboaren funtsezko tresnetako bat da. Klimaren inguruko herritarren batzarrak Europako herrialde askotan emandako esperientziak dira; hauek klima-politiken kudeaketa demokratikorako espazioa erakunde formaletatik haratago zabaltzeko aukera ematen dute.

Ezkerraldeak eztabaida-prozesu bat aktibatu beharko luke, klimaren inguruko herritarren batzarren adibideari jarraituz, trantsizio energetikoaren helburuekin eta ardatzekin egin behar den ahalegin eraldatzailea lerrotatzeko jorratu behar diren jardura-ardatz estrategikoak eztabaidatzeko. Eztabaida-prozesuen ondorioz, tokiko,

foru eta autonomia erkidegoetako erakunde publikoek kontuan hartu, eta transizio estrategiaren garapenean txertatu beharko dituzten gomendioak emango dira.

7. lan ildoak: Berriztagarrien plana eta trantsizio ekologikoa

21. ekimena: Herri-administrazioaren energia-mendekotasuna murrizteko programa

- Eguzki-plakak jartzea udal-eraikin guztietan, lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta administrazioaren instalazioetan.
- Proiektu pilotua, Portland hirian (AEB) egindako esperientzien antzera malda handienak dituzten tarteetako hodien barruan kokatuko dira turbinak. Turbina hauen bidez ura hornitzeko eta saneatzeko sistemetan energia sortzeko instalazioak ezarriko dira.
- Herriko argien eraginkortasuna hobetzea, faroletako argiak berrituz. LED teknologiarako trantsizioa osatzea.

22. ekimena: Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak hiru irizpideren arabera ezartzeko aukera aztertzea: Adostasun soziala, Ahalik eta inpakturik txikiena ingurugiroan eta Kontrol publikoa

Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak hiru irizpideren arabera ezartzeko aukera aztertzea: Adostasun soziala, ahalik eta inpakturik txikiena ingurugiroan eta kontrol publikoa. Ezkerraldea, Euskal Herri osoa bezala, energia kontsumo handiko eremua da. Hori dela eta, gure gain hartu behar dugu hura murrizteko erronka, eta energia berriztagarrien bidez kontsumitzen dugun energiaren zati baten ekoizpena ere bilatu behar dugu. Mikro-instalazioekin batera, arestian aipatutako irizpideak betetzen dituen instalazioren bat hartzeko baldintzak betetzen dituen eremuren bat dagoen aztertu beharko litzateke.

23. ekimena: Energia berriztagarrien balio-katea indartzeko plana

Energia berriztagarriek pisu ekonomiko handia dute, eta, gainera, garrantzi handiagoa izango dute. Ezkerraldeko industriaren aldeko apustuak energia berriztagarrien balio-katea izan behar du bere baitan (potentzia-elektronika, ingeniaritzak, eguzki-plakak, errotak, elektrolizatzailak, itsas eolikoa), bere elementu nagusietako bat den aldetik. Beharrezkoa da sektore hori modu ordenatuan eta proaktiboan bultzatzea, eta, horretarako, balio-kate hori indartzeko/hedatzeko plan bat izatea, ahal den alderdi guztietan.

8. lan ildoak: Energia komunitateak

24. ekimena: Ezkerraldeko energia berriztagarrien eskualdeko agentzia.

Proiektu eragilea

Ezkerraldeko Energia Berriztagarrien Eskualdeko Agentzia sortzea, tokiko eremutik energia berriztagarriak sortzea eta merkaturatzea sustatzeko, maila guztietako autokontsumoa bultzatuz (norbanakoarenak, administrazioa eta enpresak) eta energia berriztagarriak merkatuz eta demokratizatuz.

25. ekimena: Energia komunitateak sortzeko plan orokorra

Energia-komunitateak aurrerapen handia dira energia garbiaren ekoizpenean eta energia horren kudeaketa demokratikoan. Ezkerraldeak erakunde arteko plan bat egin behar du, eskualdean energia-komunitateak sortzeko egon daitezkeen eremuak detektatzeko, eta, ondoren, datozen urteetan ahalik eta komunitate gehien garatzeko.

Udalerrien arteko erakunde mankomunatu bat (24. ekimena) arduratuko litzateke prospekzio-kudeaketa horretaz eta, ondoren, energia-komunitateen garapenaz. Horretarako, BFAren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza teknikoa eta ekonomikoa izango luke, Europako finantzaketa bilatzeaz gain. Ekintzak proaktiboa izan behar du, eta erakunde mankomunatuak proiektuak aholkatu, antolatu eta lagundu behar ditu, herritarrek proiektuetan parte hartzeko aukera izan dezaketen zalantza eta zailtasun tekniko eta ekonomikoak gainditzeko.

Erkidegoak jabetza publikokoak, publiko-komunitariokoak edo komunitariokoak izan daitezke. Gure proposamena da gutxienez 20 komunitate lortzea, 20 GWh inguruko ekoizpenarekin.

3. ardatza. Biozientziak



Euskal erakundeek aurkeztutako EM-EPEak osasunaren polo bat sortzea aurreikusten du, ekimen bultzatzaileretako bat bezala. “2. Proiektu eragilea: Osasun Poloa. Med Tech produktuak eta zerbitzuak.” Lan honen asmoa borondateak batzea eta partekatuak izan daitezkeen proiektuak proposatzea denez, ez dugu arazorik beste esparru batzuetan proposatutako ekimen positiboak onartzeko. Horrela, Osasunaren Polo honen sorrera, ezagutzaren ekonomian txertatuta, eskualdean jarduera ekonomikoa eta kalitatezko enplegua sortzeko balio dezakeen elementuetako bat bezala aitortzen dugu eta balioa ematen diogu.

EM-EPEak planteatzen duenaren arabera. Ezkerraldea-Meatzaldea osasun-eskaintzaren balio-katearen kontzentrazio handia du, bai asistentzia-mailan, bai ikerketa-mailan: Ezkerraldea Enkarterri ESI, Gurutzeta, San Eloy ESI, Bio Gurutzeta, KronikGune, Bioef. *“Osasun sektoreak protagonismo handia du eskualdean, izan ere BEGaren %10 izanik kualifikaziodun 11.300 profesional batzen ditu, baina enpresa eremuan proiektzio mugatua izanik”*²⁸

Osasun Poloa “enpresa txiki eta ertainentzako teknologia- eta merkatu-orientazioko” proiektu bat izango litzateke: “prototipoen saiakuntzatik eta balidaziotik hasi eta gailu medikoen ziurtapeneraino, berrikuntza irekiko ingurune bat eta enpresen arteko lankidetzak” sortuz. “Goi teknologiako enpresentzako traktore proiektu bat izango litzateke, Euskadik teknologia mediko aurreratuen garapenean parte har dezan”.

Bestalde, Ezkerraldeak Euskal Herriko ospitalerik handiena du, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea. Funtsezkoa da azpiegitura hori sustatzea, ez bakarrik osasun-arretaren eremuan, baita ikerketa zientifikoaren esparruan ere. Bio-Gurutzeta Institutua Unibertsitate Ospitalearen esparruan kokatzen da. Biocruces Bizkaia Institutuaren misioa ikerketa translazionala (laborategian pazientearen arretatik sortzen diren galderei erantzutea bilatzen duena) eta berrikuntza sanitarioa sustatzea da, balioa sortzeko eta osasunean eragina sortzeko gizar-tearentzat, osasun-sistemaren, industriaren eta ezagutza zientifiko eta teknologikoko ekosistemaren arteko topagune izanik eta, era berean, ikerketa eta berrikuntza sanitarioaren iraunkortasuna bermatuz. Sendagaien edo ekipoen ikerketarekin batera, funtsezkoa da ikerketa medikoa bultzatzea, Bio-Gurutzeta Institutua indartuz.

9. lan ildoak: Biozientzien garapena

26. ekimena: Berrikuntza poloa osasunaren esparruan. (EM-EPEko 2. proiektu eragilea)

Osasun arloko berrikuntza gune bat garatzea eskualdean. Zerbitzu zentro bat enpresa espezializatuentzat, gailu medikoetarako balidazio- eta ziurtapen-sistemen garapenean espezializatua. Gailu medikoetan espezializatzea eta nazioarteko lider gisa kokatzeko testak egiteko gaitasuna: 3D irudia, adimen artifiziala, datuen erabilera edo errehabilitazioa.

Epe ertainera enpresa-parke bat garatzeko aukera, osasun-sektoreko enpresen interesaren eta inbertsio-erakarpenaren arabera.

27. Ekimena: Biocruces institutua sustatzeko plana

Biocruces Institutua sortu berria da eta instalazio modernoak ditu. Horrek ez du esan nahi hobetu eta handitu ezin denik, detekta daitezkeen beharren arabera, erakunde hori Euskal Herriko medikuntzako I+Gko erreferente gisa kokatzeko, baita nazioartean ere. Horretarako, zentro hori instalazio, ekipamendu eta proiektuetan hobetzeko eta finkatzeko beharrak eta aukerak baloratuko dira.

4. ardatza. Tokiko merkataritza

Tokiko merkataritza ekonomiaren eta gizarte-bizitzaren ardatz egituratzaileetako bat da. Hurbileko merkataritzak produktu jakin batzuk eskuratzeko aukera ematen die, horietako asko oinarritzakoak, mugitzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen, baina, horrez gain, bizitza, harremanak, segurtasuna eta giroa eskaintzen dituzten kaleetan. Azken urteotan, merkataritza txikiaren gainbehera orokorra gertatu da mundu osoan, eta hori larriagotu egin da Ezkerraldean, erakundeek denda txiki asko ezabatu dituzten merkataritza-gune handien aldeko apustua egin dutelako.

Merkataritza-gune handiekin batera, merkataritza elektronikoak ere eragina izan du tokiko merkataritzaren errealtatean. Merkataritza-zentroek eta e-commerceko multinazionalak eskalari lotutako abantailak dituzte, prezio hobeak eskaintzeko aukera ematen dietenak, baina zerga-pribilegioez eta lan-baldintza okerragoez ere baliatzen dira. Lehia desleiala ahalbidetzen duten praktika horiek arautzea eskualdez gaindiko erakundeen esku dago, baina Ezkerraldeetik presioa egin behar da alderdi horietan aldaketak gerta daitezen. Gainera, berezko eskumenen esparruan, tokiko merkataritzari ematen zaion laguntza biderkatu behar da, babestu eta bultzatu beharreko balio ekonomiko eta soziala baita.

10. lan ildoak: Merkataritza-ehunari babesa

28. ekimena: Merkataritza elkarteekiko harremana eta babesa hobetu

Udalek harreman iraunkorrak ezarriko dituzte merkataritza-elkarteekin, eta haien lana babestuko dute zuzeneko laguntzak handituz, bai eta kualifikazioa hobetzeko eta inguruneak dinamizatzeko programen bidez ere.

29. Ekimena: Denda historikoen aitortza

Udalek antzinatasun handiena duten eta/edo diseinuan, altzarietan eta dekorazioan balio artistiko edo arkitektonikoa duten merkataritza-establezimenduen identifikazioa sustatuko dute. Hori denda historiko gisa aintzatesteko egiaztapen bat ezartzeko, laguntzak eta zerga-arintzeak lortzeko helburuarekin.

30. ekimena: Tokiko komertzio bonoetan hobekuntzak

Ezkerraldeko udalek, merkataritza eta ostalaritzako elkarteekin koordinatuta, orain arte garatutako bono-merkataritza programen emaitzak ebaluatuko dituzte, bai tokiko erakundeetatik, bai beste batzuetatik ere. Ebaluazio horrek hurrengo ekimen hobetuak planifikatzea bilatuko du, programen zenbatekoa eta kopurua handituz, eskaintza merkataritzarako data onenei egokituz, izapideak sinplifikatuz, merkatariei itzulketak ahalik eta gehien aurreratuz, etab.

31. ekimena: Merkataritza-guneetarako lurzorua ez birkalifikatzea

Ezkerraldeko udalek konpromisoa hartuko dute merkataritza-gune handiak edo zentro logistikoak ezartzeko industria-lurak EZ BIRKALIFIKATZEKO eta, formatu handiko merkataritza-instalazio berriak onartzerakoan, indarrean dagoen araudiaren interpretazio ahalik eta murriztaileena egiteko.

32. ekimena: Dendetan eta ostalaritzan energia-kontsumoa murrizteko programa. [Proiektu eragilea](#)

Dendetan eta ostalaritzan energia-kontsumoa murrizteko programa, LED teknologiara igarotzea eta etxetresna elektriko eraginkorrak erostea sustatuta, hala nola isolamendu termikoko neurriak eta energia aurrezteko beste neurri batzuk. Aukera dagoenean, autokontsumoa baloratuko da.

Azalera handien kasuan, plan horiek eta eguzki-plakak eta auto elektrikoak kargatzeko puntuak ezartzeko eskatuko da.

33. ekimena: Merkataritza-gune handiei zerga berdea ezartzeko eskaera

Azalera handiek ingurumen-inpaktu handia eragiten dute. Behar diren azpiegiturak diru publikoarekin eraiki eta mantentzen dira, eta, gainera, autoz egindako erosketek emisio handiak sortzen dituzte. Inguruko udalek tasa hori ezartzeko eskatuko diote Eusko Jaurlaritzari²⁹.

34. ekimena: Pisuetako jarduera profesionalak lonjetara eramateko programa

Lonja askok hutsik dirauten bitartean, Ezkerraldeko ehunka negozio pisuetan kokatzen dira, etxe horiek bizi-tegi-aukeratik kenduz eta atarietan igarobideen biderkatzea sortuz. Garrantzitsua da negozioak kalean bertan egotea etxeak askatzeko eta hiri-jarduera sortzeko. Udal bakoitzak pisuetako jarduera profesionalen errolda bat egin beharko luke, eta pizgarriak sortu beharko lituzke etxbeetara aldatu ahal izateko, bereziki merkataritza-jarduerarik ez duten eraikuntza berriko eremuetan.

35. Ekimena: Lonjen eta lokalen alokairuak merkatzeko programa

Gaur egun, jarduera askotan alokairuaren ordainketak diru-sarreraren zati handi bat hartzen du, eta askotan negozioen etorkizuna arriskuan jartzen du, itxiera zuzenean eragiten ez badu ere. OHZtik hutsik dauden lonjetara igo beharko litzateke, lokalak itxita dituztenentzako penalizazio gisa. Horretarako, zerga-politika eta zerga-ordenantzak erabil daitezke. Horrek eskaintza handitzea eta alokairuak merkatzea ekarriko luke. Beste neurri osagarri batzuk aztertu beharko dira; izan ere, egokiena, etxeekin bezala, alokairuen mugak ezartzea litzateke, baina horrek udalen eskumen-esparrua gainditzen du.

²⁹ Posible da, eta beste leku batzuetan ere egiten da, ingurumen-tasa bat ezartzea kanpokotasun horiek konpentsatzeko. EH Bilduk Gasteizko legebiltzarrerara eraman zuen proposamena, baina EAJk eta PSEk aurka bozkatu zuten

5. ardatza. Industria kultura



Ezkerraldean industria-kultura sustatzea hainbat mailatako beharra da. Alde batetik, alderdi historiko-sentimentala du, gure iraganaren ezagutza eta izan ginenaren memoria mantendu nahi duena. Bestalde, beharrezkoa da gure ondare materiala eta ez-materiala babestea eta balioan jartzea, berezko balioa dutelako eta, gainera, kultura- eta ekonomia-aukerak sortzen dituen altxor gisa. Gainera, industria-kulturak industria-jarduerarekin lotutako bokazio profesionalak sustatzeko balio behar du, bai alderdi formatiboan, bai ekintzailetzaren eremuan.

Horregatik guztiagatik, nahiz eta ondarearen zatia turismoari buruzko atalean ere garatzen den. Industria-memoriaren kontserbazioa ardatz independentea da, nahiz eta zeharkako izaera handia izan.

11. lan ildoak: Kultura industriaren sustapena

36. ekimena: Teknikaren eta Industriaren Euskal Museoa. [Proiektu eragilea](#)

Museo handi bat sortzea, Ezkerraldeko eta herrialdeko beste leku batzuetako industria-ondarearen elementu nagusiak bilduko dituen. Museoak erakusketa-lana izango luke, baina baita zaharberritzea, dibulgazioa, ikerketa eta industriarekin eta teknikarekin lotutako beste jarduera batzuk ere. Proposatutako kokapena Zorrotzako Molinos Vascos eraikina izango litzateke, Ibaizabal Parke Teknologikoaren proiektuaren barruan, baina beste kokapen batzuk bilatu ahal izango lirateke, eraikin hori erabili ezin bada edo egokiagotzat jotzen den alternatibaren bat sortzen bada. Instalazioak industria-kultura zabaltzeko zentroa hartuko luke, arlo horretako sustapen-politikak koordinatzeko.

Lutxanako egungo kokapena aurreko biltegiatze hutsarekin alderatuta aurrerapena da, baina ez die proiektu honen beharrei erantzuten, ezta aurreikusitako handitzeari ere. Edukitzailean, edukian eta proiektuan anbizio handiagoko planteamendua balego, kokapen egokia izan liteke.

37. ekimena: Industria Kultura Zabaltzeko Euskal Zentroa. [Proiektu eragilea](#)

Kultura industrial zabaltzeko euskal zentroa Ezkerraldean kokatzea, arlo horretako sustapen-politikak koordinatzeko, batez ere industriaren museoko instalazioetan. Gure kultura-ondare immateriala biltzeko eta kontserbatzeko azterlanak, eta ekimenak bultzatzea eta babestea.

38. ekimena: Industria-ondarearen inbentario orokorra, eta berau osorik berreskuratzeko eta balioa emateko ibilbide-orria. [Proiektu eragilea](#)

Ezinbestekoa da behingoz Ezkerraldeko industria-ondarearen eta haren kontserbazio-egoeraren inbentario orokorra egitea. Ondoren, gizarte- eta erakunde-arteko mahai batek ibilbide-orri bat prestatuko luke, osoki berreskuratzeko eta balioa emateko; eta mahai honek adostuko luke elementuen erabilera, zaharberritze-/balorizazio-egutegia eta ekimenen finantzaketa.

39. ekimena: Industria-kultura ikastetxeetara hurbiltzeko programa

Industria-kultura ikastetxeetara hurbiltzeko programa bat abian jartzea. Programa horrek honako hauek barne hartuko lituzke: leku adierazgarrietara bisitak egitea, ibilbide globalak, erakusketak, hitzaldiak eta Ezkerraldeko ikasleei historia eta ondare industrial ezagutaraztea ahalbidetuko duten dibulgazioko eta curriculumeko beste jarduera batzuk, bai eta haien oraina eta etorkizunerako aukerak ere. Era berean, hau curriculum-aren baitan sartzea egokia litzateke.

40. ekimena: Hitzarmena unibertsitate publikoarekin, industria-kulturaren prestakuntza eta ikerketa hobetzeko

Erakundeek industria-kulturaren arloan prestakuntza-eskaintza hobetzeko programa bat adostea proposatuko diote EHUri, katedra edo institutu espezifiko bat abian jartzeko aukera, ikerketa-bekak sortzea, tesiak alor horretara bideratzea eta abar barne hartuta.

41. ekimena: Industriarekin eta langile mugimenduarekin lotutako efemerideen egutegia

Industria-garapenaren (fabriken, enpresen edo eraikinen inaugurazioa, enpresa enblematikoen desagertzea...) eta langile-mugimenduaren (sindikatuaren fundazioa, grebak...) mugarri nagusiak bilduko dituen egutegia egitea. Egutegi horretatik abiatuta, efemeride nagusiak ospatzeko modua aztertuko litzateke, gertakari bakoitzarekin bat datozen ekitaldien bidez.

42. ekimena: Industriarekin eta egoitza artistikoekin lotutako arte-programa

Industria Kultura Zabaltzeko Euskal Zentroak, edo, bestela, beste erakunderen batek, industriari lotutako kultura eta artea hedatzeko programa bat egingo du: arkitektura, zinema, plastika... Zehazki, proposamen hauek bultzatuko dira, besteak beste:

38.1 Industriarekin lotutako gaiak lantzen dituen zinemaldia

38.2 Egoitza artistikoen programa, industriak inspiratutako artelanen sorkuntza sustatzeko

6. ardatza. Turismo jasangarria



Jarduera ekonomiko guztiak bezala, turismoa abantailak eta eragozpenak dituen sektorea da. Zalantzarik gabe, turismoa aisialdiko eta kulturako elementu garrantzitsua da, eta, horrez gain, enplegua eta jarduera nahiko erraz sor ditzakeen ekoizpen-sektorea da. Baina, aldi berean, gehiegizko ustiapen turistikoak masifikazio-arazoak, nortasuna galtzea, etxebizitza eskuratzea zailtzea eta abar sor ditzake. Turismoari lotutako fenomeno negatibo horiek opor-eremuekin lotuta egon dira historian zehar; hala ere, azken aldian low cost bidaiak edo erabilera turistikoko etxebizitzak bezalako berrikuntzek arazo horiek ia hiri handi guztietara zabaldu dituzte. Era berean, ez da ahaztu behar turismoak balio erantsi gutxi sortzen duela eta, oro har, kalitate txarragoko enplegua sortzen duela. Horrek guztiak eztabaida handia sortu du turismo-ereduen inguruan. Argi eta garbi, Ezkerraldea urrun dago gehiegizko turismoak sortzen dituen kalteetatik; izan ere, bertako aukerak aprobe txatu gabe daude. Horregatik, turismoa sustatzeko eredu propio baten alde egiten dugu, eskaintza berezia daukagunari lotuta: industria-turismoa. Aldi berean, eremu horretan Meatzaldearekin eta Enkarterrirekin dauden sinergiak argiak dira, eta, beraz, uste dugu baterako ekintza bat bilatu behar dela eredu partekatu bat garatzeko.

12. lan ildoak: Mendebaldea helmuga turistikoa

43. ekimena: Mendebaldea helmugua turistikoa sortu. [Proiektu eragilea](#)

Helmuga turistikoa EAEko kudeaketa turistikoa jasotako figura bat da, eta zonako turismo-politikaren plan zuzentzaile bat eta sustapen-ekintza espezifikoak egitea eskatzen du. Gaur egun 6 helmuga turistikoa daude EAEn: hiriburuak, kostaldea, barnealdea eta Errioxa. Ezkerraldea-Meatzaldea-Enkarterri barne hartzen duen beste bat gehitzea proposatzen dugu, Mendebaldea (Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterria). Turismoaren kanpo-sustapena helmuga horretan soilik oinarritu beharko litzateke, baita turistikoki saturatuta ez dauden eremuak biltzen dituzten beste batzuetan ere.

44. ekimena: Ezkerraldea: erreferente globala industria-turismoan. [Proiektu eragilea](#)

Ezkerraldeak eta bere inguruak industria-ondare oso baliotsua gordetzen dute, mundu mailakoa: labe garaia, Molinos Vascos, Bizkaia Zubia, Illgner eraikina, Gallartako meategiak, labeak, langile-etxeak, La Encartada fabrika. Turismo mota honetan nazioarteko potentzia bihurtzeko borondatea baieztatzeko garaia da, ez beste batzuk bezain masiboa, baina bai nitxo oso interesgarria. Turismo-helmuga propioa sortzeak nortasun hori sustatzeko eta proiektatzeko ekintzak garatzea ahalbidetuko luke, bai eta eskualdea herrialde osoan industria-turismoaren trakzio-gune izatea ere.

Hori bai, ondare industrialaren kontserbazioa haren ustiapen turistikoa gainetik jarri behar da, turismoarentzat erakargarriagoa izan dadin; haren kudeaketan ondare hori kaltetu edo desitxuratu dezaketen ekintzak erabat saihestuz.

45. ekimena: Ibilbideak, interesguneak eta seinaleetika espezifikoak

Kontserbazio- eta hedapen-programen esparruan, industria-ondareari lotutako hainbat ibilbide identifikatzearen alde egiten dugu, modu gidatu edo autonomoan egin daitezkeenak. Bai ibilbideak bai mugarriak nortasun industrialari lotutako seinaleetika espezifiko baten bidez identifikatuko dira, espazioak behar bezala identifikatu eta interpretatu ahal izateko.

13. lan ildoak: Beste eredu turistikoko batzuk

46. ekimena: Turismo jasangarria sustatzea

Turismo industrialak Ezkerraldeko politika turistikoa oinarria izan behar badu ere, inguruko jardura turistikoa ahultasunak gizarte- eta ingurumen-iraunkortasunarekin bateragarriak diren beste sustapen-ildo batzuk garatzearen aldeko apustua egitera gonbidatzen gaitu. Ildo horretan, sustapen-planak garatu behar dira honako arlo hauetan:

- Bizikleta-turismoa, bidegorrien sarea ahalik eta gehien handituz.
- Natura-turismoa.
- Turismo gastronomikoa.
- MICE turismoa, arreta berezia jarrita fluxuak atzemateko BECen jardueratik abiatuta.

7. ardatza. Lehen sektorea

Lehen sektoreak ia ez du pisurik Ezkerraldeko ekonomian. Lurraren industrializazioak eta artifizializazioak leku gutxi utzi diete nekazaritza eta abeltzaintzako jardueri. Hala ere, krisi geopolitikoek elikadura-horniduren egonkortasuna mehatxatzen dute eta krisi ekologikoak tokiko ekoizpen jasangarria bultzatzen du. Une hauetan, elikadura-subiranotasunak zentzu osoa hartzen du, eta eremu horretako ekoizpen-aukera guztiak aprobetxatzera behartzen du, nahiz eta mugatuak izan, gure eskualdean bezala.

Sestaok eta Portugaletak ez dute jarduera horietarako lursailik; Santurtzik, berriz, arrantza-jarduera eta urbanizatu gabeko eremuak ditu, eta Barakaldok urbanizatu gabeko azaleraren zati handi bat, neurri batean basogintza-, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretarako erabiltzen dena. Ez dugu ahaztu behar Meatzaldeak eta Enkarterrik askoz jarduera biziagoa dutela lehen sektorean, eta kasu askotan zailtasun handiak dituztela produktuei irteera emateko edo ustategietan erreleboak aurkitzeko.

14. lan ildoak: Lehen sektoreari bultzada Ezkerraldean

47. ekimena: Ezkerraldeko Nekazaritza Kontseilua eta Plana

Udalek, tokiko garapen-agentzien bidez, Ezkerraldeko Nekazaritza-Kontseilu bat sortzea sustatuko dute, sektoreko eragileekin batera lehen sektorea sustatzeko plan integral bat diseinatu eta garatzeko. Planak, besteak beste, honako neurri hauek jasoko lituzke:

- Lur ustiagarrien errolda egitea eta lur horiek balioan jartzeko aukera aztertzea.
- Lurrak nekazaritza ekologikoan bideragarri bihurtzea.
- Sektoreko lan-alternatibei lotutako informazioa eta prestakuntza-jarduerak garatzea.
- Inguruko nekazaritza- eta abeltzaintza-produktuen kontsumoa erraztea, merkaturatze-zirkuitu laburrak eta kontsumo-taldeak bultzatuz.
- Ezkerraldeko jantoki kolektiboetan tokiko produktuen kontsumoa bultzatzea.
- Belaunaldi-erreleboko ekintzak bultzatzea inguruko eremuetako ustategietan, aukera hori enplegu-premiak dituzten edo sektorerako bokazioa duten pertsonen hurbilduz.
- Gizarteratzeko edo laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen nekazaritza-jardueraren aukera hurbiltzea, Muskizko FTSiren proiektuaren antzera.
- Enkarterri eta Meatzaldearekiko sinergiak bultzatzea.
- Arrantza-jarduerak babestea eta sustatzea.

48. ekimena: Baso-politika jasangarria eta baso autoktonoak berreskuratze plano

Helburu ekonomikoak dituen baso-ustategiak produkzio-ehunaren parte izan behar du, baina ingurumen-orekari lehentasuna emango dion baso-politika global batean lotuta egon behar du. Pinuz eta eukaliptoz betetako

mendia landaketa bat da, ez baso bat. Adibide gisa, Barakaldoko heren batean zuhaitzak daude. Baina Barakaldon 321 hektarea baso natural daude, eta 548,04 hektarea, berriz, baso-landaketak³⁰.

Beharrezkoa da Ezkerraldea inguratzen duten mendietako baso-jarduera iraunkorrerako Plan Tekniko bat garatzea, Inbentario bat, helburu eta neurri zehatz batzuk barne hartuta, besteak beste baso autoktonoa berreskuratzea edo sustatzea (kontserbaziorako edo ekoizpenerako). Planak barne hartuko du erakundeek baso autoktonoa birlandatzeko lurak erostea bultzatzeko estrategia.

30 Barakaldoko landa-ingurune/naturguneo biodibertsitatearen ebaluazioa. Or. 7. Equinoccio Natura 2018. Barakaldo Naturala eta Eguzki

Ezkerraldea 2030

Plan Estrategikoa



2. arloa: Lurraldea



Lurraldea deskribatuz

Ezkerraldeak 4.056 hektareako azalera hartzen du, Barakaldo da udalerririk zabalena 2.500 ha-rekin eta Portugalete txikiena 319 ha-rekin. Lurzoruaren % 48 urbanizaezina da, eta Santurtzin (Serantes eta inguruan batez ere) eta Barakaldon (batez ere hegoaldean dauden mendiak) dago. Sistema orokorrek lurraldearen % 18 hartzen dute, jarduerak % 16 eta biztanleria-nukleoak lurzoruaren gainerako % 18.

UDALERRIA	Azal. (Ha.)	Azal. (%)	Urbanizaezina	Sist. orokorrak	Jard. ekonomikoak	Bizitegi-guneak
Barakaldo	2.500	62%	65%	11%	8%	16%
Portugalete	319	8%	0%	56%	8%	36%
Santurtzi	876	22%	35%	18%	30%	17%
Sestao	361	9%	0%	35%	41%	24%
Ezkerraldea	4.056	100%	48%	18%	16%	18%

Lurraldearen antolamenduari dagokionez, Ezkerraldeak hainbat **gabezia eta baldintzapenak** izan ditu, lehenik eta behin bere iragan industrialaren ondorioz eta, ondoren, azken 40 urteetan hartutako erabaki politikoen ondorioz. Lurralde ez oso zabala da (Bizkaiko lurraldearen % 1,8), baina biztanleriaren % 19 hartzen du, horrek dakarren demografia- eta hirigintza-presioarekin. Sestaon eta Portugaleten, adibidez, azaleraren % 100 artifizializatuta dago, ez dute lurzoru urbanizaezinik. Santurtzi eta Barakaldo udalerri zabalagoak dira, baina lurzoruaren erabilgarritasuna ez da askoz ere handiagoa.

Ezkerraldeko lurzoruaren proportzio handi bat **udalaz gaindiko erabilerako sistema orokor** deiturikotarako da. Zehazki, **eskualdearen azaleraren % 18** erabilera komun horietarako da, eta Bizkaian, berriz, % 5. A-8 autobia eta Ballontiko Ardatza, Galindoko HUA, Gurutzetako Ospitalea, Portua eta merkataritza-gune ugariak (Ballonti, Max Center, Mega Park) dira sistema orokorretarako lurzoruak osatzen dituzten jardueretako batzuk. Jarduera horiek guztiek Ezkerraldeko biztanleentzat abantaila batzuk eskaintzen badituzte ere, zenbaketa orokorrean esan daiteke abantaila gehiago eskaintzen dituztela lurraldeko gainerako biztanleentzat eskualdearentzat baino.

Ahalmen handiko bide-azpiegiturak, hala nola A-8 eta Ballontiko Ardatza, beharrezkoak dira lurraldea egituratzeko eta ekonomia errazteko, eta esan daiteke abantaila gehiago eskaintzen dizkietela Ezkerraldeko biztanleei (irigarritasunari dagokionez) desabantailak baino (garraioaren kanpokotasun gisa). Ezkerraldea udalerrien arteko errepide bidezko konexioa oso egokitzen jo daiteke, baina oinez, bizikletaz edo autobusez egindako konexioak badu hobetzeko tarterik, mugikortasun-blokean aztertzen den bezala.

Galindoko araztegia eta merkataritza-zentroek. Ezkerraldeko biztanleei onura gutxi ekartzen dieten jarduerak dira, hartzen duten hedadura handiarentzat. Merkataritza-guneek lanpostuak sortzen dituzten arren (oro har, kalitate txarrekoak), hurbileko merkataritzako enpleguak suntsitzen dituzte (kalitate handiagoko enpleguak) eta trafikoaren ondoriozko inpaktu negatiboak sortzen dituzte.

Galindoko HUAan, metropoli-eremuko hondakin-ur gehienak araztu egiten dira; oso onura garrantzitsua da lurralde osorako, baina Ezkerraldeko biztanleek jasaten dituzte ikusmen-inpaktu negatiboak, usain txarrak eta lurzoruaren okupazioa. Araztegia eta merkataritza-guneak Ezkerraldean kokatzea erabaki izanaren arrazoia

lurzorua deskontaminatzearen izaera garestia izan zen. Industria itxi ondoren, logikoa izango zen industria astun horren ordeztu jarduerak ekonomiko modernoagoa egitea. Ezkerraldea ondo lotuta zegoenez, bai itsasoz, bai errepidez edo trenbidez, Bizkaiko parke teknologikoa eta beste enpresa indartsu batzuk inguruan kokatu ahal ziren; hala ere, industria astunak zituen lurzorua deskontaminatzearen kostu handiak eta lurraldeko beste eremu batzuetan erabili gabeko lursail merkeagoak kontsumitu nahiago izan zuen klase politikoak. Horregarik galdu zen aukera.

Ezkerraldea eraikitzen joan da beste euskal lurraldeetatik nahiz Estatutik edo hainbat herrialdeetatik historian zehar etorritako milaka pertsonen ekarpenari esker; gustatu egiten zaigu eta hori horrela izaten jarraitzea nahi dugu. Begirada horretatik eraikitzen jarraitu nahi dugu. Ezkerraldea, beraz, **askotarikoa da kulturalki**, eta oso garrantzitsua da erakusteko modu ugari horiek aintzat hartzea eta ulertzea, inor atzean geratuko ez den eskualde kohesionatu bat eratzeko.

Kultura (bere aniztasun guztiekin) ezinbestekoa da pertsonen garapenerako eta, beraz, komunitatearen ongizaterako; baita integrazioarako eta kohesiorako tresna gisa ere; hori datozen urteetako erronketako bat da Ezkerraldean. Aldaketa sozialak nagusi diren eta kultura mota desberdinak elkarrekin bizi diren testuinguru honetan, euskal kultura, **mundura irekita dagoen euskal kultura**, elementu lotzailea izatearen aldeko apustua egiten dugu.

Izan ere, kultura eskubide unibertsala da, pertsona orori eta herri osoari bermatu behar zaiona. Kultura integrazioarako eta kohesiorako tresna garrantzitsua da datozen urteetan, migrazioak, bizikidetza eta aldaketa sozialak nagusi izango diren testuinguruan.

30. lan ildoak: Kultura-aniztasuna

Ezkerraldeak duen aniztasuna gure kultura eratzen joan den aberastasuna da, eta gure herria ikusteko eta eskualde gisa kokatzeko modu bat sortu du. **Aniztasun hori** berez indartu behar dugun balio bat da, jatorri-aniztasuna baita **gure nortasunaren ezaugarrietako bat**.

Ezkerraldeko herritar guztien eskubide, betebeharrak eta aukera berdintasuna defendatzea, jatorria, kultura edo sinesmenak edozein direla ere, Ezkerraldea harrera lurralde bihurtuz.

101. ekimena: Kulturaren bidezko udalerri barnerakoiak

Inklusioak eta aniztasunak zeharkako lan ildo bat izan behar dute cultura politikan. Kulturaren bidez udalerri barnerakoiak sor ditzakegu. Munduan badira arte eszenikoak erabiltzen dituzten hainbat esperientzia, jendartean baztertuta dauden pertsonak integratzeko, adibidez; argazkigintza emakumeek eztabaida eraldatzaileak sortzeko; Barakaldon, Zirko Domoaren adibidea dugu... Kulturaren bidez parte hartzeko prozesuak sustatu behar ditugu.

31. lan ildoak: Kultura-sektorea

Kultur kudeaketa ona onuragarria izango da gure eskualdearentzat, bai ekonomiari eta enpleguari dagokionez, bai jendarteari dagokionez. Ezkerraldean badakigu kultura aberastasuna dugula, bai eta arlo horretan diharduten enpresa, erakunde eta elkarten kopurua handia dela ere.

Izan ere, kultur sektoreak gaur egun duen garrantzi ekonomikoa oso ezaguna da. Horregatik, kultur aniztasuna kudeatzea oinarritzko elementua izateaz gain, ekonomia bultzatzeko estrategia ere izango da.

Beharrezkoa da kultur sistema osatzen dutenen artean kultur politikak diseinatzeko topaguneak sortzea. Herri honetan kultur ekoizpenean diharduten eragile guztiek izan beharko lukete topaketa foro horietan parte hartzeko aukera, inor baztertu gabe.

102. ekimena: 2023-2033 kultur ekintzaren plan estrategikoa. **Proiektu eragilea**

Bere errealitate demografikoagatik eta eskura dituen baliabideen bolumenagatik, Ezkerraldeak kultur sorkuntzaren hainbat arlotan nodo global bihurtzeko ahalmena du. 2023-2033 kultura-ekintzako plan estrategiko bat diseinatzea proposatzen dugu. Plan horren helburuak honako hauek izango lirateke: eskualdeko cultura sektoreei balioa ematea, ahaleginak koordinatzea, sinergiak aktibatzea eta Ezkerraldean cultura sektorea bultzatzeko ibilbide orri integral bat zehaztea.

103. ekimena: Praktika artistikoak sortzeko eskualdeko zentroa

Eskualde mailan praktika artistikoak sortzeko zentro bat sortzea, eremu irekia diziplina artistiko guztietara (eskultura, pintura, dantza, musika, antzerkia...), erreferentziala eta nazioartean puntakoa, Bilbon kontzentratu ohi den jarduera kulturala deszentralizatuz. Talentua erakartzeko eta irradiazio artistikorako gaitasuna duen goi mailako zentroa.

104. ekimena: Kulturgintzaren kudeaketa eta deszentralizazioa

Kanpora begira dagoen eskualde-zentro batekin batera (103. ekimena) beharrezkoa da kultura, bere sorreran eta kudeaketa politikoan, garatu eta hedatzea, gure eskualdeko txoko guztietara iritsiz.

- Kultura espazio publikoen enpresa pribatuaren kudeaketa formula bakarra saihestuz, kultura zentroen kudeaketa parte-hartzailea bultzatzea, kultura taldeekin, auzo-elkarteekin, sortzaileekin eta abarrekin.
- Auzoak eta zentro txikiak kultura-sorkuntzako nodoak bultzatzea, kultura-dinamikaren hedapena sortu.

16. ardatza. Euskara

Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da, baita Ezkerraldekoa ere. Gure eskualdeko historiak eragin du hemen euskararen ezagutza eta erabilera herrialdeko beste leku batzuetan baino txikiagoa izatea, baina hala ere euskara ez da arrotza, ezta gutxiagorik ere. 2016an, Ezkerraldean bizi ziren pertsonen % 45ek baino gehiagok, 100.000 pertsonak, ulertzen zuten euskara (% 24,79k zekien euskaraz eta % 20,24 ia-euskaldunak ziren).

Gero eta jende gehiago bizi da euskaraz, bizi da euskara, Ezkerraldean. Gure eskualdea ia erdaldun elebakarra izatetik euskara erabat ez dakiten pertsonen % 52 izatera igaro da. Aurrerapauso handia, gure komunitatearen borondatearen eta ahaleginaren ondorioz.

Beste aldean, erabilera-maila gelditu egin da, erakundeen laguntza eskasa izan da, eta sektore politiko, sindikal eta judizial batzuen erasoak ere izan dira.

32. lan ildoak: Ezkerraldean euskaraz

Euskara barneratzeko tresnarik garrantzitsuena da gure inguruan. Eskualdeko hizkuntza egoera ez da herrialdeko beste lurralde batzuetakoa bezalakoa. Ezkerraldeko errealitate zehatza kontuan hartuta, hizkuntza murgiltzeko baliabide eta politiken inbertsioa indartu behar da. Hizkuntza eskubideak, zalantzarik gabe, oinarrizko eskubideen esparruan kokatu behar dira; horregatik, lehentasunezkoa da euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatuko dituen eta Ezkerraldea euskaldun baterantz aurrera egiten lagunduko duen politika garatzea. Horrek hizkuntza-politiketan jauzi kualitatiboa ematea eskatzen du.

105. ekimena: Ezkerraldean euskaraz. Proiektu eragilea

Ezkerraldean euskara bizitzako alderdi guztietan ikasten eta erabiltzen laguntzeko kanpaina jarraitua eta zeharkakoa egin behar da. Administrazioak aitzindaria izan behar du ildo horretan, eta eredu izan behar du; aldi berean, dinamika hori sustatzen du gainerako sektoreetan. Besteak beste, neurri hauek proposatzen dira:

- Administrazioek euskarari eta haren kulturari laguntza publikoa ematea, lehentasunezko sustapenaren bidez eta kontzientziazio kanpainen bidez.
- Lau herrietan euskararen ordenantza ezartzea, hizkuntza eskubideak bermatu eta arautzeko.
- Edozein administrazio edo erakunde izapidetan informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea.
- Euskarazko proiektuak balioestea eta lehenestea kultur laguntza mota guztietan.
- Euskaraz sortutako kultura kontsumitzera zuzendutako kanpainak.
- Euskara ikasteko laguntza-materiala handitzea.
- Euskarazko kultura eta aisialdi eskaintza hobetzea.
- Merkataritzan eta beste lantoki batzuetan euskararen erabilera bultzatzea.
- Euskarazko kultur sorkuntza sustatzea eta babestea.

106. ekimena: Hizkuntza-paisaia euskalduna

Ekintza itundu bat jarri behar da abian, batez ere udalen eta merkatarien elkarteen artean, errotulazioa eta euskararen presentzia bultzatzeko merkataritza establezimendu guztietan, bai tokikoetan, bai eskualdeko merkataritza-gune haundietan. Horretarako, konpromisoak ezarriko dira, baina aholkularitza eta laguntza materiala ere eskainiko dira. Bestalde, administrazioek lanean jarriko dituzte hiri-paisaiako beste elementu batzuk, merkataritza-jarduerari lotutakoez gain, euskaraz ere egon daitezen.

107. ekimena: Ezkerraldeko komunikabide bat euskaraz sortzea

Ezkerraldeko komunikabide bat euskaraz sortzeko proiektua bultzatzea.

108. ekimena: Ezkerraldeko euskararen zentro komunitarioa

Euskara bere alderdi guztietan sustatzeko erreferentziazko eraikin baten proiektu komunitarioa abian jartzea. Udalek zentro hori bultzatuko lukete, Ezkerraldeko euskalgintzako eragileekin elkarlanean. Eredua **Kafe Antzokia izan daiteke**, Ezkerraldeko euskaldunentzat erreferentziazko lekua, Bilborentzat izan zen bezala. Ez bakarrik aisialdira bideratua, baizik eta proiektuak garatzeko edo negozioak, kultura...

109. ekimena: Euskararen Aholku Batzordea

Ezkerraldeko euskaldunen kopurua altua bada ere, ez dute erreferentzia puntu askorik. Horri erantzuteko estrategia bat Ezkerraldeko Euskararen Aholku Batzordea eratzea izango da. Batzorde horretan herrietako eragileek, euskara teknikariek, herritarrek eta ordezkari politikoek parte hartu ahal izango dute, euskararen inguruan sor daitezkeen hausnarketak eta eztabaidak bideratzeko. Gainera, proiektu berriak garatzen lagunduko duen espazio berri bat sortzeko urratsak emango ditu, euskarazko ekoizpen ezberdinentzako erreferentziazko gunea izango dena.

17. ardatza: Hezkuntza

Hezkuntza herri osoaren ardura da, eta komunitate osoaren inplikazioa behar du, garrantzi handia baitu pertsonen eta gure eskualdearen garapenerako. Hezkuntzak lehentasun soziala izan behar du, ezinbesteko tresna baita aurrera egiteko eta jendarte barnerakoi, kohesionatu, plural, solidario, euskaldun eleanitz eta aske bat lortzeko. Ezkerralde euskaldun, anitz eta solidarioaren alde hezkuntza komunitateen artean egindako lana aitortu eta bultzatu nahi dugu. Horregatik, hezkuntza sistema publiko burujabe baten aldeko apustua egiten dugu, **euska eskola publikoa** ardatz izango duena.

Hezkuntza Sailaren berezko eskumenetatik haratago, udalerrri eta eskualde mailako ekintzak hezkuntza komunitatearen hobekuntzan izan behar du pisua; batez ere hurbilen dagoenari dagokionez: segregazioaren aurkako borroka, hizkuntza eta jendarte eta kultura-proiektuak, eskolaz kanpoko jarduerak, hezkuntza komunitatearen kohesioa eta jendarte eragileekiko koordinazioa.

Ezkerraldean eta gainerako lurraldeetan, pandemiak hutsune ugari utzi ditu agerian hezkuntza-sisteman. Gure gaitasunetatik modu eraginkorrean artatu eta kudeatu beharreko arazoak dira (eten digitala, arrakala soziala,



ikaskuntza galtzea, euskararekiko deskonexioa). Arazo horiek hezkuntza sistema berreraikitzeke aukera gisa aurre egin beharko litzaieke, inklusioari eta ekitateari dagokienez.

Hainbat erakundek eta azterlanek Ezkerraldean jarri dute arreta, gure herritarren kalteberatasun bereziagatik; izan ere, gure eskualdeak desberdintasun egoerak eta ongizate elementuak eskuratzeko zailtasunak ditu, beste leku batzuek baino gehiago.

Save The Childrenek ohartarazi duenez, “...Ezkerraldean hainbat arazo daude, hala nola familia desegituratuak, errenta baxuak, langabezia-indize handia, adikzioak eta etxebizitzaren eta zerbitzu publikoen beharra. Eusko Jaurlaritzaren inkesta ofizialek Euskadiko gainerako lurraldeek baino haur-pobreziaren poltsa altuagoa erakusten dute, laneko, ekonomiako eta jendarteko profil kalteberak metatzen baitira”.³¹

Datu horiei gehitu behar zaizkie siderurgia-industriaren ereduak eta horren ondorengo beherakadak gure eskualdean utzi dituen ondorio historikoak: kualifikazio gutxiagoko profilak eta enpleguaren kalitate baxuko lan-aukerak.

Ezkerraldean, beraz, prestakuntza maila txikiagoa eta enplegu kalitate, soldata maila eta egonkortasun gutxiagoko enplegu eskaintza handiko eredu ekonomikoa duen biztanleria dugu. Hori dela eta, gaur egun EAEko errenta-mailak baino txikiagoak dira hemengoak, eta eskualde honetako biztanleria berria erakartzeko gaitasun txikiagoa dago hemen. Errealitate horiek markatuko dute, zalantzarik gabe, gure etorkizuna datozen urteotan.

Bestalde, dauden desberdintasun sozialen isla da eskola. Horretarako, eskola herriaren zentro aktibo, kohesio-natzaile eta eraldatzaile gisa ulertzen dugu. Ondorioz, gure helburua "herri hezitzaileak" eraikitzea da. Herri hezitzaile batek hezkuntza **hurbila, kalitatezkoa, plurala, barnerakoia, euskaldun eleaniztuna eta parte-hartzailea bermatuko du.**

31 Save The Children Euskadi, Kristian Prieto.(25 nov 2019)

33. lan ildoak: Eskola komunitarioa, barneratzailea eta euskalduna

110. ekimena: Ezkerraldeko hezkuntza mahaia eta Udal Hezkuntza Kontseiluak

Ezkerraldearen behar sozioekonomikoei erantzungo dien hezkuntza eredu bat garatzeak azterketa eta hausnarketa eskatzen du. Ildo horretatik, honako hau proposatzen dugu:

- Ezkerraldeko **hezkuntza egoera aztertzeke eta ikasteko lan mahai bat sortzea**. Mahai horrek aholkatuko eta koordinatuko lituzke Udal Hezkuntza Kontseiluak, hezkuntza eta jendarte eragileek, ikastetxeek eta erakundeek osatuak.
- Tokiko hezkuntza egoera, eskola mapa, plangintza eta matrikulazioa, besteak beste, aztertu eta aztertuko dituzten **Udal Hezkuntza Kontseiluak** sortzea.

111. ekimena: Proiektu eragilea: jendarte-itun handi bat sustatzea eskola-segregazioaren aurka. [Proiektu eragilea](#)

Eskola segregazioaren aurkako Jendarte Itun handi bat sustatzea, inplikaturako eragile eta erakunde guztien inplikazioa bilatuz:

- Udal matrikulazioko bulegoak sortzea, Udal Hezkuntza Kontseiluen barruan, finantzaketa publikoa jasotzen duten ikastetxe guztien artean ikasleen aniztasuna modu ekitatiboan sustatzeko eta segregazioa saihesteko.
- Inbertsioa giza baliabideetan eta baliabide ekonomikoetan, gure eskualdean gertatzen den eskola bereizketarekin amaitzeko.
- Gure udalerrietako ikasleei zuzendutako jarduera guztiak euskaraz, barnerakoiak eta ez-sexistak direla bermatzea.
- Hezkidetza patio barnerakoiak sustatzea.
- Eskolen eta Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen/protokoloen arteko harremana sistematizatzea.

112. ekimena: Hezkuntza espazioa ikasgelatik haratago zabaltzea, “herri hezitzaile” filosofian.

- Eskola unibertsoaren eta udalerrian dauden elkarten arteko lankidetza sustatzea, elkartzeko eta trukatzeko guneak sustatuz.
- Ikastetxeetan herri curriculumaz ezartzea, ikastetxearen plana egiterakoan herrietako eta eskualdeko ondarea, kultura eta ohiturak kontuan hartuko dituen. Ezkerraldea historia duen eskualdea da, eta hori ikasgelatan ere sartu beharreko balioa da.
- Ikastetxeen inguruetan ingurune seguruak sustatzea, trafiko arriskuak saihestuz eta oinezkoentzako gune berdeak sortuz.

- "Eskola-bide" seguruak sustatzea ikasleen autonomia bultzatzeko, eskualdeko udalerrietako kaleei bizia emanez.
- Eskola jantokietan tokiko ekoizleekiko lankidetzak bultzatzea, sukalde propioak sustatuz, elikadura subira-notasunaren bidean urratsak ematea ahalbidetzen baitute.

113. ekimena: Haur hezkuntzako lehen zikloan inbertitzea

Haur-etapa ezin da hezkuntzarako eskubidetik kanpo geratu. Horregatik proposatzen dugu:

- Haurreskolak Partzuergoaren eskaintza zabaltzea.
- Udal haur-eskoletan doakotasuna bermatzea.

18. ardatza. Osasuna

Osasuna pertsona guztiei gizabanako gisa dagokien **eskubidea da**, baita kolektibo gisa dagokigun eskubidea ere. Horregatik, **osasun-sistema publiko, unibertsal eta bidezko baten alde egiten dugu**. Gaixotasuna tratatzeaz haratago doan eta asistentziaren alderdira mugatzen ez den sistema bat; herritarrekin batera osasuna eraikiko duen sistema bat, ingurune osasungarriak eraikiz eta eraldatuz, pertsona guztien ongizatea lortzeko; hau da, osasunean eta zoriontasunean politika eraginkorrak izango dituen sistema bat.

“One Health/Osasun bakarra” ikuspegia eman nahi dugu; pertsonen, animalien eta ingurumenaren osasunaren zaintzan diziplinarteko lankidetzak areagotzea bilatzen duen ikuspegia; hori guztia, hainbat sektorek elkar komunikatzen eta laguntzen duten programak, politikak, legeak eta ikerketak diseinatuz eta aplikatuz, osasun publikoaren emaitza hobek lortzeko.

Gogoratu behar da **pertsona guztiek dutela berdintasun eta ekitate eragingarriko eskubidea** osasun arloko esku hartze, prestazio eta zerbitzu guztietan; ezin da bereizkeriarik egin sexuaren, adinaren, etniaren, erlijioaren, egoera sozioekonomikoaren, gaitasun funtzionalaren, iritzia, sexu orientazioaren edo beste edozein inguruabar edo egoera pertsonal edo sozialen ondorioz.


Herritarrek osasun maila onena lortzeko aukera berdintasuna izateko eskubidea dute. Administrazio eskudunek, besteak beste, politika sektorial ekonomikoak, enpleguak, lanekoak, hezkuntzakoak eta jendarte zerbitzuen arlokoak garatuko dituzte, jendarte ekitaterik handiena lortzeko, pertsonen abiapuntuko egoerak eta testuingurua ahaztu gabe.

Horregatik, **politika guztietan osasun ikuspegia sartu nahi dugu auzoak**, etxebizitzak, bidegorriak, parkeak, industria parkeak, etabar, planifikatu eta eraikitze orduan; gure udalerria planifikatzeko orduan, atariaren zenbakiak, auzoak, mugikortasunak, zainketek, jendarte-zerbitzuek eta abarrek osasunean desberdintasun gehiago sor ez dezaten; Ezkerraldea osasungarriagoa eraiki nahi dugu. Ezkerraldeko udal guztiek osasun publiko betaurrekoak izatea nahi dugu.

Horregatik, **kultura eta pentsamoldea aldatzea** dugu helburu. Osasun eta asistentzia ikuspegi tradizionalaren ordean, osasunaren ikuspegi integrala ezartzea; ikuspegi horrek lehen mailako arreta, anbulatorioak eta ospitaleak zaindu eta bultzatuko ditu; osasunaren prebentzioa indartu eta bultzatuko duen ikuspegia. Horretarako

2. Antecedentes

Ponencia para el estudio de la situación socioeconómica de la Margen Izquierda, Zona Minera y Oarsoaldea



rako, **osasunaren dimentsioa politika guztietan integratu behar da**, hirigintzakoak, ekonomiakoak, ingurumenekoak, etab. Era berean, **arreta komunitarioa** beti ere kolektiborik, zaurgarrienei lehenatsuna emanez jendarte zerbitzuetan, lehen mailako arretan, kirol zerbitzuetan eta abarretan integratuko dugu.

Izan ere, gure helburua jendartearen osasun egoera hobetzea da, herritar guztiak zenbat eta urte gehiago osasuntsu eta mendetasunik gabe bizi daitezen; eta hobeto dauden eta arrazoi sozioekonomikoengatik, generoa-gatik, etniagatik eta abarregatik okerrago dauden arteko aldeak murriztea. Gure herriak eta eskualdeak gure bizilagunen osasuna bermatzeko eragile aktibo bihurtu nahi ditugu.

Baina udalek osasun eskumenik ez badute ere, ez dugu alde batera utziko asistentzia zatia, Osakidetzako anbulatorio, ospitale eta zerbitzu soziosanitarioetan. Lanean jarraituko dugu lehen mailako arreta indartzeko, or-dutegiak murriztu ez daitezen anbulatorioetan eta Etengabeko Arretako Guneetan; lan egingo dugu, halaber, langile nahikoak eta profil desberdinetakoak egon daitezen herritarrak behar bezala artatu ahal izateko; Osaki-detzarako sarbidea mundu guztiari errazteko; gaixo kronikoek beharrezko jarraipena izan dezaten; itxaron-ze-rrendak murrizteko; auzoetara hurbiltzeko; etxeko arreta hobetzeko.

34. lan ildo: Osasun osoa eta komunitarioaren eredia

114. ekimena: Osasun Baliabideen mapa egitea

Udalerri bakoitzean osasun aktiboen mapa egitea, Jendarte Zerbitzuetako, Berdintasuneko, kiroleko, herri-tarren elkarteetako eta lehen mailako arretako udal teknikariek batera. Parte hartzeko prozesu baten bidez udalerriko OSASUN BALIABIDEEN MAPA EGITEA.

115. ekimena: Osasunerako orientazioko udal zerbitzua sortzea

Lehen mailako arretako, jendarte zerbitzuetako, kirol zerbitzuetako, eskualdeko osasun publikoko eta Osakidetza profesionalen, orientazio zerbitzua sortzea, osasuna sustatzeko programak garatzeko. Izan dadila bakardadeari aurre egiteko programak, elkarteekin, ibilaldi osasungarriekin, zainketa mahaiaren konfigurazioarekin eta abarrekin batera.

116. ekimena: Udal-Osasuneko Plan bat diseinatzea, tokiko politiketan osasun-politikak sartzeko. [Proiektu eragilea](#)

Sailarteko batzorde tekniko baten bidez, osasun publikoaren lankidetzarekin Udal Osasun Plan bat diseinatzea, gainerako udal politiketan osasun politikak sartzeko eta osasun-inpaktuaren ebaluazioak egiteko. Adibidez, hirigintzan, jendarte-zerbitzuetan, ekonomian, etab.

117. ekimena: Herritarren osasunaren arloko ahalduntzea sustatzea, parte-hartzearen bidez

Inguruko anbulatorioetako profesionalen, adituen edo arloko profesionalen laguntzarekin, prozesu parte-hartzaileen eta kolektiboen bidez hezkuntza eta osasun arloko prestakuntza lantzea. Talde bakoitzaren adina eta beharrak hartuko ditugu kontuan. Adin eta kolektibo ahulenei emango diegu lehentasuna.

118. ekimena: Udalen parte hartze aktiboa ESIaren jendarte-kontseiluetan

ESIen funtzionamendua arautzen duen dekretuan (100/2018 Dekretua) bi aholku kontseilu sortzea aurreikusten da, jendarte kontseilua eta sozio-sanitarioa (III. kapitulua). Udalek ESIen Jendarte Kontseiluan parte hartzea proposatzen dugu, helburu hauekin:

- Laguntza egokia eskaini ahal izateko baliabide nahikoak daudela ziurtatzea.
- Baliabide horiek publikoak direla ziurtatzea, eta, bestela, publiko bihurtzearen alde lan egitea.
- Baliabide horien artean integrazio maila egokia dagoela ziurtatzea.
- Asistentzia pazientearen hizkuntza errespetatuz eskainiko dela ziurtatzea. Hobetzeko arloak proposatzea eta horiek egiten direla ziurtatzea.
- Itxaron zerrendak murrizteko lan egitea.
- Pertsona guztiei Osakidetzarako sarbidea errazteko lan egitea.

119. ekimena: Udalen parte-hartze aktiboa ESlaren batzorde sozio-sanitarioetan

ESlen funtzionamendua arautzen duen dekretuan (100/2018 Dekretua) bi aholku-batzorde sortzea aurreikusten da, jendarte-kontseilua eta sozio-sanitarioa (III. kapitulua). Udalek ESlen Batzorde Sozio-sanitarioan parte hartzea proposatzen dugu, helburu hauekin:

- Esparru sozio-sanitarioak behar bezala koordinatzen direla bermatzea eta integrazioa bultzatzea.
- Lortutako datuak aztertzea eta hobekuntzak proposatzea.
- Gabeziak eta beharrak identifikatzea eta premia handiena duten pertsonei laguntzea lehenestea.

120. ekimena: Osasuna indartzea hezkuntza-testuinguruetan

Estrategiak bultzatuko ditugu hezkuntzako adingabe eta profesionalekin hezkuntza testuinguruetan, osasuna pertsona eta kolektibo kritikoak sustatzen dituen prozesu gisa sustatzen laguntzeko. Herritar arduratsuak eta osasun indibidual eta kolektiboarekin konprometituak nahi ditugu, tokiko errealitatea eraldatu, ingurune osasungarriak sortu eta mundu bidezkoagoa eraiki ahal izateko.

121. ekimena: Lan-osasuneko estrategiak sustatzea

Tokiko eta eskualdeko mailan OSALANekin eta tokiko enpresekin lankidetzan aritzeko proposamenak bultzatuko ditugu, osasuna, prebentzioa eta laneko segurtasuna sustatzeko programak indartzeko.

Gobernantza kooperatiboa

Politika onaren ordua

Gure eskualdearentzat etorkizun hobe eta justua eraikitzeko, **eremu publikoa beste modu batean kudeatu** behar da, udalerritik bertatik hasita. Kudeaketa-eredu alderdikoi eta antzua jasan dugu hamarkadetan zehar. Kudeaketa-eredu berri bat behar dugu. Gauzak beste era batera egin behar ditugu. Erakundeen eskala osoan. Udaletatik, bereziki.

Horretarako, eragile komunitario – instituzional, sozial eta ekonomiko – guztiek elkarreraginean jardungo duten gobernantzaesparru bat eraiki behar da. Komunitatearen ekosistema osoa elkarreraginean jartzea eta espazioa eta denbora izatea ikuspegi partekatua garatzeko; adostutako ebaluazio metodologia eta sistemekin lan egitea, eta epe ertain-luzerako ikuspegia lehenestea.

Udalak beste komunitate eragile bat izan beharko luke hierarkikoa ez den lankidetza eremu horretan; sistema horretan ez litzateke egon behar prozesua zuzentzeko nukleo formal bakarra. Lehen esan dugun bezala, jendarte mugimendu baten funtzionamendutik hurbil dagoen espazio bat izango litzateke, proiektu asko elkarrekin konektatzen dira, eta horien koherentzia eta ikusgarritasuna areagotzen dira. Mota horretako plataforma komunitario batek forma asko har ditzake, tokiko baldintzen eta komunitatearen ezaugarrien arabera.

Gobernantza eredu on batek ere baditu bere mugak, eta horietaz jabetu behar dugu. Esan dugu udala eragile komunitario kualitatiboa dela, legitimatzailea delako eta baliabide publikoak ematen dituelako. Kasu gehienetan, plataformaren bultzatzaile nagusia izango da, eta bere gain hartu beharko du gobernantza komunitarioan funtsezko funtzio organikoa: konektore, integratzaile edo artikulatzaile gisa jardutea; hau da, eragile komunitarioen arteko sareak eta konexioak eraikitzea eta zaintzea. Eginkizun hori ez du udalak bakarrik bete behar, baina gehienetan eginkizun horretan garrantzitsua izango da.

Komunitatearen plataformaren mekanikak hiru fase ditu: entzutea, interpretazioa eta baterako sorkuntza eta ebaluazioa. Fase horiek ez dira logika sekuentzial zurrun baten arabera ulertu behar. Gobernantza komunitarioak herritarrek transmititzen dituzten pertzepzioak eta beharrak denbora errealean detektatzeko gai izan behar du, baita premia horiei erantzuteko proiektuak esperimendu eta ebaluatzeko gai ere, etengabeko prozesuaren logikan.

Gobernantza kooperatiboaren ezaugarri nagusia administrazioa eta herritarrak barne hartzen dituzten erabakiguneak eraikitzea da. Bere helburua erabakitze ahalmena banatzea da, udalerraren etorkizuna komunitatean eraiki ahal izateko.

Hamarkada honetan aurkezten zaizkigun erronka globalek izaera desberdineko eragileen arteko lankidetza espazioak artikulatzea eskatzen dute nahitaez. Zer egin nahi den bezain garrantzitsua da nola egin, prozesua **herritarrak ahalduzko eta komunitatea josteko bide bat baita**. Horrek ezaugarritzen du gure udalgintza: herritarrekin batera eraiki nahi dugun etorkizuna.

Gobernantza kooperatiboan jauzi bat eman behar dugu. Izan ere, esku artean ditugun erronka sozial konplexuek inoiz baino gehiago eskatuko digute eraldaketa prozesuak herritarrekin batera pentsatu eta gauzatzea. Demokrazia liberalaren krisiak herritarren eta erakundeen arteko aldea areagotu du. Gure udalerriek distantzia hori murrizteko ez ezik, herritarrak ahalduzko ere balio behar dute. Gure udalerriek komunitatea egituratze-

ko eta jendarte kohesioa sendotzeko balio behar dute. Gobernantza-eredu horrek egitura komunitarioak sortzea bilatu behar du, ahal denean. Gobernantza-eredu horrek erabaki komunitarioak (horizontalak) hartu behar ditu herriaren etorkizunean.

Gobernantza komunitarioa, benetako gobernantza feministaren sinonimo. Txanpon beraren bi alde. Politika egiteko beste modu baten bi definizio, pertsonak kudeaketa publikoaren eta ezarri beharreko politiken ardatzean kokatuz. Gobernantza feminista, zentro eta erabaki-esparruetan praktika komunitarioa sendotzeko.

Arnas luzeko eraldaketa prozesu batean murgilduta gaude. Horrelako prozesuetan, errore-marjina handia izaten da; horrelako prozesuek esperimentazio ekintzen etengabeko espirala artikulatzea eskatzen dute, amaierarik gabeko ikaskuntza prozesua, etengabeko berrikuntza. Eraldaketa iraunkorren aro batean bizkorrak izan behar gara irtenbide berriak ezartzeko garaian. Horrek, batzuetan, **berrikuntzak egitea eta bestelako jarduerak baterako tarte irekitzea** dakar. Baina, era berean, eremu publiko eta komunitariotik **herritarrei beren oinarrizko eskubide eta beharrak bermatuko diren ziurtasuna eskaintzea behar dugu.**

Politika instituzionalaren munduak eskaintzen ditu praxi kaxkarren adibide ugari, eta horrek herritarren inibizioa eta politikatik aldentzea sustatzen du. Kontrakoa aldarrikatu behar dugu guk. **Politikaren ordua da: politika onaren garaia.** Martxan dauden eraldaketa prozesu konplexuak modu partekatuan gidatuz soilik bermazakegu prozesu horiek emaitza onuragarriak sortuko dituztela. Hori izango da berriro elite ekonomikoen zerbitzura diseinatutako eszenatokia saihesteko modu bakarra. Politika ona erakundeen barruan eta kanpoan garatu behar da, baita herri mugimenduetatik ere. Erakundea eta jendarte-erakundeak: batzuetan dialektikoki harremantzen diren bi errealitate, baina arazo estrategikoei aurre egiteko batera lerrokatzeko espazioak bilatu behar dituztenak.

Ezkerraldeak bultzada berri bat behar du. Lana izugarria dela ikusi dugu. Dokumentu hau hurbilketa bat baino ez da. Gure eskualdea Euskal Herriko gainerako lurraldeekiko, bizi-baldintzei dagokienez, berriro berdintasunean kokatzea nahi baldin badugu, beharrezkoa izango da indar endogeno guztiak aktibatzea eta kanpoko laguntza ere erakartzea. Tokiko garapena eta ekintza instituzional bateratuen aktibazioa dira gakoak. Herritarrek ezin dute ekintza instituzionalaren ikusle izatera mugatu. **Ezkerraldeko jendeak protagonista izan behar du bere etorkizunaren eraikuntzan.**

DENOK EZKERRALDEA GARA!

121 ekimen Ezkerraldea justu eta aberatsagoa lortzeko bidean

1. Arloa: **Ekonomia**

1. ardatza. Berrindustrializazio adimendua 5.0

1. lan ildo.	Espezializazio arloen definizioa 5.0.
1. ekimena:	Ezkerraldean industria-espezializazioko 7 eremu handi hartzea. Proiektu eragilea
2. lan ildo.	5.0 Espezializazio arloekin lerrokatze planak
2. ekimena:	Espezializazio-arloetan jarduteko adostutako 7 plan diseinatzea.
3. lan ildo.	Industria lurrak egokitu
3. ekimena:	Ezkerraldeko lurzoru industrialen inbentarioa egitea.
4. ekimena:	Kutsatutako lurzoruak berreskuratzeko plana (EM-EPEaren 3. Trakzio-proiektua).
5. ekimena:	Industrialdeak modernizatzeko plan integrala abian jartzea.
6. ekimena:	Lurzoru industria birkalifikatzea saihesteko akordioa.
7. ekimena:	Espazio estrategikoak identifikatzea.
8. ekimena:	Bizkaia-Ibaizabal parke teknologikoa sortzea. Proiektu eragilea
4. lan ildo.	Inbertsioak erakarri
9. ekimena:	Invest Ezkerraldea: Ezkerraldea inbertsioak erakartzeko lehentasunezko eremu izendatzea.
10. ekimena:	Indartu planaren ebaluazio eta indartzea.
11. ekimena:	Ezkerraldearekiko diskriminazio positiboko klausulak eusko jaurlaritzaren eta aldundiaren programetan.
12. ekimena:	Elkarrizketa-mahaia kooperatiba-mugimenduarekin, ezkerraldean kooperatibismoa eta ekintzailatza kolektiboa indartzeko.
13. ekimena:	Toki-garapenerako agentzien ebaluazioa, koordinazioa eta hobekuntza.
5. lan ildo.	Hobekuntzak formakuntzan
14. ekimena:	Prestakuntza-eskaintza espezializazio-arloetara egokitzea.
15. ekimena:	LH zentroak modernizatzeko eta haietan inbertsioa egiteko plana.
16. ekimena:	Eskaerari egokitutako birkualifikazio-planak.
17. ekimena:	Eskaintza/gaitasunak/bokazioak hobetzea STEAM.
18. ekimena:	Azterketa nautikoen garapena.

2. ardatza. Energia

6. lan ildo.	Bidezko trantsizioa
19. ekimena:	Bidezko trantsizioko hitzarmena edo antzeko prozesua sinatzea. Proiektu eragilea
20. ekimena:	Trantsizio energetikoari lotutako hausnarketa prozesua.
7. lan ildo.	Berriztagarrien plana eta trantsizio ekologikoa
21. ekimena:	Herri-administrazioaren energia-mendekotasuna murrizteko programa.
22. ekimena:	Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak hiru irizpideren arabera ezartzeko aukera aztertzea.
23. ekimena:	Energia berriztagarrien balio-katea indartzeko plana. Proiektu eragilea

- 8. lan ildo:** **Energia komunitateak**
 24. ekimena: Ezkerraldeko energia berriztagarrien eskualdeko agentzia. [Proiektu eragilea](#)
 25. ekimena: Energia komunitateak sortzeko plan orokorra.

3. ardatza. Biozientziak

- 9. lan ildo:** **Biozientzien garapena**
 26. ekimena: Berrikuntza poloa osasunaren esparruan.
 27. ekimena: Biocruces institutua susatzeko plana.

4. ardatza. Tokiko merkataritza

- 10. lan ildo:** **Merkataritza-ehunari babesa**
 28. ekimena: Merkataritza elkarteekiko harremana eta babesa hobetzea.
 29. Ekimena: Denda historikoen aitortza.
 30. ekimena: Tokiko komertzio bonoetan hobekuntzak.
 31. ekimena: Merkataritza-guneetarako lurzorua ez birkalifikatzea.
 32. ekimena: Dendetan eta ostalaritzan energia-kontsumoa murrizteko programa. [Proiektu eragilea](#)
 33. ekimena: Merkataritza-gune handiei zerga berdea ezartzeko eskaera.
 34. ekimena: Pisuetako jarduera profesionalak etxabeetara eramateko programa.
 35. ekimena: Etxabeen eta lokalen alokairuak merkatzeko programa.

5. ardatza. Industria kultura

- 11. lan ildo:** **Kultura industriaren sustapena**
 36. ekimena: Teknikaren eta Industriaren Euskal Museoa. [Proiektu eragilea](#)
 37. ekimena: Industria kultura zabaltzeko euskal zentroa. [Proiektu eragilea](#)
 38. ekimena: Industria-ondarearen inbentario orokorra, eta berau osorik berreskuratzeko eta balioa emateko ibilbide-orria. [Proiektu eragilea](#)
 39. ekimena: Industria-kultura ikastetxeetara hurbiltzeko programa.
 40. ekimena: Hitzarmena unibertsitate publikoarekin, industria-kulturaren prestakuntza eta ikerketa hobetzeko.
 41. ekimena: Industriarekin eta langile mugimenduarekin lotutako efemerideen egutegia.
 42. ekimena: Industriarekin eta egoitza artistikoekin lotutako arte-programa.

6. ardatza. Turismo jasangarria

- 12. lan ildo:** **Mendebaldea helmuga turistikoa**
 43. ekimena: Mendebaldea helmugua turistikoa sortu. [Proiektu eragilea](#)
 44. ekimena: Ezkerraldea: erreferente globala industria-turismoan. [Proiektu eragilea](#)
 45. ekimena: Ibilbideak, interesguneak eta seinaletika espezifikoa.
13. lan ildo: **Beste eredu turistikoko batzuk**
 46. ekimena: Turismo jasangarria sustatu.

7. ardatza. Lehen sektorea

14. lan ildo:	Lehen sektoreari bultzada
47. ekimena:	Ezkerraldeko nekazaritza Kontseilua eta Plana.
48. ekimena:	Baso-politika iraunkorra eta baso autoktonoak berreskuratzeko plana.

2. arloa: Lurraldea

8. ardatza. Etxebizitza

15. lan ildo:	Etxebizitza eskubidea bermatu
49. ekimena:	Ezkerraldeko egoera (ber)ezagutzea.
50. ekimena:	Alokairuaren bidez etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzea.
51. ekimena:	Babes ofizialeko etxebizitzak berreskuratzea .
52. ekimena:	Lau udalerrietan birgaitze-plan integralak. Proiektu eragilea
53. ekimena:	Hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzea.
54. ekimena:	Etxebizitza eredu berriak.
55. ekimena:	Pertsona gazteentzako etxebizitza programak.

9. ardatza. Giza eskalako lurraldea

16. lan ildo:	Nekazal guneak eta gune berdeak
56. ekimena:	Natura-ingurunea sustatuko duen hirigintza-plangintza.
57. ekimena:	Landa-inguruneak eta biodibertsitatea osorik babesteko plana. Proiektu eragilea
58. ekimena:	Lindano plana.
59. ekimena:	Zuhaitzak landatzea, zuhaitza/ biztanleko 1/3 ratioa lortu arte.
60. ekimena:	Berdeguneetan aisialdirako guneak garatzeko plana.
17. lan ildo:	Hirigintza sozial eta jasangarria
61. ekimena:	Itsasadarraren ardatza berreskuratzea. Proiektu eragilea
62. ekimena:	Benedicta hondartza.
63. ekimena:	Ballontiko, Galindoko eta Kadaguako ibaiertzak berreskuratzea. Proiektu eragilea
64. ekimena:	“Supermanzanas” izeneko inizatiba.
65. ekimena:	Hirigintza taktikoko tailerrak.
18. lan ildo:	Igorpen Txikiko Eremuak
66. ekimena:	Ezkerraldeko 4 udalerrietarako Emisio Txikiko Eremua ezartzea. Proiektu eragilea
67. ekimena:	Emisioen teledetekzio-sistema.
68. ekimena:	Aparkaleku disuasorio eta periferikoak.

10. ardatza. Garraio publikoa

19. lan ildo:	Garraio publikoa indartu
69. ekimena:	Bizkaibusen zerbitzua indartzea.
70. ekimena:	Intermodalak indartzea.
71. ekimena:	Eskariaren arabera zerbitzua enklabe txikietan.
72. ekimena:	BTR autobus sistema sortzea.
73. ekimena:	Autobus-flotaren elektrifikazioa.
74. ekimena:	Metroaren maiztasuna handitzea gehien erabiltzen diren ordu eta ekitaldietan.
75. ekimena:	Trenen edukiera handitzea, 5. autoa barne.
76. ekimena:	C1 eta C2 lineak modernizatzeko plan orokorra, C1 pixkanaka lurperatzea barne. Proiektu eragilea
77. ekimena:	Bilboko Portutik merkantzien garraioa hobetzea.

11. ardatza: Azpiegiturak

20. lan ildo:	Bidegorriak eta oinezkoentzako bideak
78. ekimena:	Bidegorrien sare osoa eta funtzionala. Proiektu eragilea
79. ekimena:	Bizikletak alokatzeko zerbitzu publikoa.
80. ekimena:	Oinezkoentzako bide seguru eta eraginkorrak.

12. ardatza. Mugikortasun jasangarria

21. lan ildo:	Mugikortasun elektrikoa
81. ekimena:	Karga elektrikoko sare bat hedatzea, Europako eskakizunak berdindu edo gainditu ahal izateko. Proiektu eragilea
22. lan ildo:	Mugikortasun planak udaletan eta enpresetan
82. ekimena:	Ezkerraldean koordinatutako hiri mugikortasuneko planak.
23. lan ildo:	Pertsona guztiei bermatu mugitzeko eskubidea
83. ekimena:	Mugikortasun plan, politika eta estrategia guztietan genero ikuspegia eta irisgarritasun unibertsala txertatzea.

3. arloa. Pertsonak

13. ardatza. Zainketak

24. Lan-ildo:	Tokian-tokiko ekosistemak
84. ekimena:	Proiektu eragilea: zainketen ekosistema berriaren eraikuntza. Proiektu eragilea
85. ekimena:	Belaunaldien arteko etxebizitza komunitarioak.
86. ekimena:	Etxea eta zaintza erabiltzeko informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak sortzea.
87. ekimena:	Auzozainak zerbitzua sortzea ("auzo zaindariak").

14. ardatza. Jendarte-kohesioa

25. Lan-ildoak:

Harrera herriak

88. ekimena:

Ezkerraldeko migratzaile eta errefuxiatuentzako Harrera Plana.

89. ekimena:

Migrazioko eta kultura-aniztasuneko teknikariak, eskualdea osatzen duten lau udalerrietan.

90. ekimena:

Erroldan sartzeko eskubidea bermatzea, oinarrizko jendarte-zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko ate gisa.

26. Lan-ildoak:

Jendarte politikak

91. ekimena:

Jendarte-zerbitzuen inguruko itun sozial eta instituzionala. [Proiektu eragilea](#)

92. ekimena:

Zerbitzuen eta jendarte politiken ezarpenerako eta koordinaziorako esparru partekatua.

27. Lan-ildoak:

Etxebizitza barnerakoia, ardatz nagusia

93. ekimena:

Ekipamendu hori ez duten udalerrietan etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxea sortzea.

94. ekimena:

Housing first proiektu-pilotoa aktibatzea.

28. Lan-ildoak:

Guztiona dena

95. ekimena:

Hiper-azokideen errepublika.

96. ekimena:

Auzolaneko udal proiektuak piztea.

29. Lan-ildoak:

Politika feministak

97. ekimena:

Berdintasunerako udal kontseilu ireki eta parte-hartzaileak.

98. ekimena:

Indarkeria matxistari erantzuteko protokolo eraginkorra.

99. ekimena:

Emakumeen etxeak sortzea. [Proiektu eragilea](#)

100. ekimena:

Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko informazio- eta arreta-zerbitzua.

30. Lan-ildoak: kultura aniztasuna

101. ekimena:

Kulturaren bidezko udalerri barnerakoiak.

15. ardatza. Kultura-identitatea

31. Lan-ildoak: Kultura sektorea

102. ekimena:

2023-2033 kultur ekintzaren plan estrategikoa. [Proiektu eragilea](#)

103. ekimena:

Praktika artistikoak sortzeko eskualdeko zentroa.

104. ekimena:

Kultur ekintzaren kudeaketa eta deszentralizazioa.

16. ardatza. Euskara

32. Lan-ildoak: Ezkerraldean euskaraz

105. ekimena:

Ezkerraldean euskaraz. [Proiektu eragilea](#)

106. ekimena:

Hizkuntza-paisaia euskalduna.

107. ekimena:

Ezkerraldeko komunikabide bat euskaraz sortzea.

108. ekimena:

Ezkerraldeko euskararen zentro komunitarioa.

109. ekimena:

Euskararen aholku batzordea.

17. ardatza. Hezkuntza

- 33. Lan-ildoak:** **Eskola komunitarioa, barneratzailea eta euskalduna**
110. ekimena: Ezkerraldeko hezkuntza mahaia eta Udal Hezkuntza Kontseiluak.
111. ekimena: Jendarte-itun handi bat sustatzea eskola-segregazioaren aurka. [Proiektu eragilea](#)
112. ekimena: Hezkuntza espazioa ikasgelatik haratago zabaltzea filosofian, “herri hezitzaileekin”.
113. ekimena: Haur hezkuntzako lehen zikloan inbertitzea.

18. ardatza. Osasuna

- 34. Lan-ildoak:** **Osasun osoa eta komunitarioaren eredua**
114. ekimena: Osasun Baliabideen mapa egitea.
115. ekimena: Osasunerako orientazioko udal zerbitzua sortzea.
116. ekimena: Udal-osasuneko plan bat diseinatzea, tokiko politiketan osasun-politikak sartzeko. [Proiektu eragilea](#)
117. ekimena: Herritarren osasunaren arloko ahalduntzea sustatzea, parte-hartzearen bidez.
118. ekimena: Udalen parte hartze aktiboa ESLaren jendarte kontseiluetan.
119. ekimena: Udalen parte-hartze aktiboa ESLaren batzorde soziosanitarioetan.
120. ekimena: Osasuna indartzea hezkuntza-testuinguruetan.
121. ekimena: Lan-osasuneko estrategiak sustatzea.

Proiektu eragileen zerrenda

1. Ezkerraldean industria-espezializazioko 7 eremu handi hartzea.
2. Bizkaia-Ibaizabal parke teknologikoa sortzea.
3. Bidezko trantsizioko hitzarmena edo antzeko prozesua sinatzea.
4. Energia berriztagarrien balio-katea indartzeko plana.
5. Ezkerraldeko energia berriztagarrien eskualdeko agentzia.
6. Dendetan eta ostalaritzan energia-kontsumoa murrizteko programa.
7. Teknikaren eta Industriaren Euskal Museoa.
8. Industria kultura zabaltzeko euskal zentroa.
9. Industria-ondarearen inbentario orokorra, eta berau osorik berreskuratzeko eta balioa emateko ibilbide-orria. Proiektu eragilea
10. Mendebaldea helmugua turistikoa sortu.
11. Ezkerraldea: erreferente globala industria-turismoan.
12. Lau udaletako birgaitze-plan integralak.
13. Landa-inguruneak eta biodibertsitatea osorik babesteko plana.
14. Ballontiko, Galindoko eta Kadaguako ibaiertzak eta itsadarraren ardatza berreskuratzea
15. Ezkerraldeko 4 udalerrietarako Emisio Txikiko Eremua ezartzea
16. C1 eta C2 lineak modernizatzeko plan orokorra, C1 pixkanaka lurperatzea barne. Proiektu eragilea
17. Bidegorrien sare osoa eta funtzionala.
18. Karga elektrikoko sare bat hedatzea, Europako eskakizunak berdindu edo gainditu ahal izateko.
19. Proiektu eragilea: zainketen ekosistema berriaren eraikuntza.
20. Jendarte-zerbitzuen inguruko itun sozial eta instituzionala.
21. Emakumeen etxeak sortzea.
22. 2023-2033 kultur ekintzaren plan estrategikoa.
23. Ezkerraldean euskaraz.
24. Jendarte-itun handi bat sustatzea eskola-segregazioaren aurka
25. Udal-osasuneko plan bat diseinatzea, tokiko politiketan osasun-politikak sartzeko.

**Ezkerraldea
gara.**

ehbildu